



Ondo bukatu eta hobeto hasi

Kirola eta Osasuna Urte Berriarekin

ANTZIZAR KIROLDEGIAN

Zerbitzu
BERRIAK



BEASAINGO UDALA
Gazteria eta Kirolak

I.M.D.
K.U.E.
BEASAIN

Orduetgia
7:00-22:00

euskaldunon

FESTIVAL

Abenduak 23 larunbata
Donostiako Belodromoan

Olentzaro

5etan

Tomas
San Miguel

Kukubiltxo

Easo
eta
San Ignacio
eskolaniak

Bittor
Aiape

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Amaia
Zubiria

Michel
Ducan
eta
Carolina
Phillips

Xaxi
malabar
taldea

Gozategi
taldea

8:30
etan

Abesbatzak

Ruper
Ordorika

Tapia
eta
Leturia
Band

Deabruak
Teilatueta

EXKIXU

DUT

euskaldunon
Egunkaria

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Postetxe-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Maketazioa:
 Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Joseba Te-
 lleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
 rre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
 Jon Aizpurua, Aitziber Murua,
 Xabier Gartzia, Xabier Mendi-
 guren Elizegi, Edurne Albizu,
 Koldo Zubeldia, Gabino Murua
 eta Rufino Iraola.

Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 5.500 ale. 5.400 harpi-
 dedun.


ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRA ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Goierri buruzko cd-rom-a

Goierriko historia, toki eta pertsonai ospetsuak biltzen dituen cd-rom-a argitaratu berri du Klik Multimediak. Goierri guztiko 500en bat argazki eta ilustrazio, eta bakoitzari buruzko berri ematen duten testuak jasotzen ditu cd-rom-ak. Euskaraz eta gaztelaraz, aukeran izango duzu informazioa.

Irakurri bakarrik egin daitezkeen datuak gordezen dituen disko optikoa da cd-rom-a. Zertxobait zehazteko, hona hemen zer aurki daitekeen cd-rom-ean. Historiari dagokionean, historiaurretik historia garaikiderainoko datuak ematen dira, ilustrazio eta testuekin. Agertzen diren pertsonai historikoak, be-

rriz, 4 dira: Andres Urdaneta, Loinazko San Martin, Jose Inazio Iztueta eta Josemiel Barandiaran. Eta toki edo geografiari dagokionean, mendi, ibai, herri, auzo, urtegi... guztiak agertzen diren mapa ikusiko da lehenik. Beste guztietan bezalaxe, ikusi nahi den izenaren gainean saguarekin klik egin eta hortxe izango duzue informazioa.

Pedro Luis Uranga Klik Multimediakoak aurreratu digunez, Aralar Parke Naturaleko lana egiten ari da orain, Ataunen egitekoa den aterpetxean jartzeko. Era honetako lanik egin edo informazioa nahi izanez gero, 88 95 50 telefonora deitu besterik ez duzue.

Besteek esana

"Eguraldia beti asmatzea ez da komeni. Burtsak ere, hurrengo egunean zer geratuko den aldeztu aurretik esango bagenu, galdu egingo luke bere xarma. Eguraldiak, berdin".

Andoni Aizpuruk,
 1995-XII-2 'Egunkaria'n

"Orain San Andresko ermita dana Segurako leenengo Eliz Nagusia izan omen zan 1256 garren us-tera arte. Arte aldetik meritu aundiko imajinak omen dira bertan dauden batzuek. Ermita eta irudi, danak ere ez dira atzo goizekoak. Orra nola iraun duten, ala ere, aintziñako kontu eta gauz askorentzat bear bezelako ardurarik ez daukagun gure egun auetaraino. Ez noski segurarrak zintzo gorde ez balituzte. Ez erria eta erriko gauzak maite izan ez balituzte. Gai ontan zer ikasirik asko eman du eta ematen du Segurak".

Inozentzio Oleak, 'DV'n.

"Eguberrietan gizartearen eraginaz, ingurukoenez edo bakoitzaren premia bitarteko, oso konsziente eta inolako arazorik gabe, zoriontasuna erosi, antzestu eta sinistu egiten dugu".

Xabier Barandiaranek
 95-XII-12 "Egunkaria'n.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Akatsa zuzenduz

Aurreko aleko eskutitza Matias Mendizabal zaldibitarrena zen. Ordenagailuaren akatsagatik, orritik kanpo gelditu zen sinadura.

Ertzaintza ez da herriarena

Itsasondoko gertakarien ondoren, beti bezala ondorioetan gelditzen direnek ez dute sustraletara heltzeko inongo asmorik. Gertatutakoaren ondoren egin daitekeen galdera bakarra hau da: zergatik gertatu da? Hori da erantzun beharreko galdera.

Ertzaintzaren jokabidea erantzun eta protesta ugari jasotzen ari da azken urteetan, eta horrek arrazoiren bat izango du. Ertzaintza, PNV eta Ajuria Eneako tresna armatu bilakatu da, beraz ikuspegi politiko bat defendatzeko eta beste borrokatzeko dago. Horren espresio sistematikoa egunerokoa dugu Hegoaldeko hiru Herrialdeetan.

Goierriin gazteek jasaten duten kontrola, presio eta errepresio jasan ezina bihurtzen ari da, ertzaintetik hasi eta beste maila batzuetaraino ere heltzen ari dena. Iritzi politiko "ofiziale-tik" kanpo dauden gazte guztiak fitxatzea helburu duen polizia da Ertzaintza, bitarteko guztiak erabiliz, jendea beldurtu eta pentsakeraz aldarazi nahi dute.

Mikel Otegirekin egin dutenak ez du argibide gehiagorik behar, urteetan zehar jarraitu, atxilotu, iraindu, presionatu eta mehatxatu ondoren, lana utzi eta kanpora joatea beharturik dagoen 23 urteko gazte honi, ez diote beste aukerarik utzi, azkenean gainezka egin du.

Gainezka egiteko modu asko daude, ikusi dugu atxiloteta baten ondoren eta presio polizialari esker nola militante batzuk konfidente bihurtzen diren, beste batzuk lur jota eta beldurraren poderioz dena uzten dutenak ere izan dira. Gazte asko ikusi ditugu jasandakoak prentsaren aurrean salatuz, negarez, jota. Mikel Otegiren erantzuna, horixe izan zen, neurrikoa edo neurrigabekoa, baina erantzuna.

Herri Batasunatik ezin dezakegu gertakarien ondorioetan --mingarriak izanagatik-- bakarrik gelditu, arrazoiak eta irtenbideak bilatzeko erantzunkizuna hartu dugu eta hortan saiatzen gara. Goierriko hiru Alkateek arrazoi osoa dutela uste badute ere, beraien alderdiaren estrategiaren morroi direnez, Atutxari kobertura ematen ari dira, berak igande gauean emandako aginduak betetzen ari dira. Alkate horiek eta Goieki erakundeak, estrategia polizialaren menpe daude, bere garaian enpresariengaiarekin jokatu zuten bezala ari dira oraingoa ere.

Gertakaria nola kalifikatu behar zen eztabaidatzen ibili ziren, ez zuten nahi politizatu, gertaerak eta --batez ere-- bizi dugun giroak benetako beldurra ematen baitie, ez baitute atzera egiteko ausardiarik. Guzti hau Atutxak bidalitako gutunaren ondoren dator, eta Ertzaintzaren kolektiboan dagoen egoenezina nagusitzen ari denean.

Guk ez dugu inongo zalantzarik, igandeko gertakaria ezin da testuiguru politikotik kanpo atera eta ondorioz Mikel Otegi errepresioaren biktima izaki, ezker abertzalearen babes osoa izango du, ez egin duenagatik, biktima delako baizik.

Goierriko Herri Batasuna

Nora goaz?

Galdera honekin joan den abenduak 10ean Itsasondon gertatutakoari zentzu bat aurkitu nahi genioke.

Azken hilabeteotan bizi dugun tentsio egoera honetan kokatzen dugularik gertakizun hau, persekuzio politiko-polizial bateagatik izatearen justifikazioek ez digute balio. KASetik E.N.A.M.eko sektore deszerebratueni zuzendutako estrategia paranoiakoaren emaitza zuzena izan da. Elkarrekiko gorrotoan oinarritutako estrategia honekin, euskal gizartea ze ildotik doan ikusteko adibide bat besterik ez da izan.

Abendu honetan HBn gertatzen ari den aldakuntzarekin, (Mahai Nazionalako postuen akaparazioa KASeko integristengatik), egoera honek luzerako iraungo duen itxura guztia dauka. Zubimendi, Gorka Martinez, Salaberria, Olarra eta antzeko pertsonajeekin gizarteak zer espero dezake ba?

Gainera, beraiek dira biktimak, beraiek dira Euskal Herria, beraiek dira abertzaleak, beraiek dira euskal gazteria... Gizarte honetako %15 besterik ez dira!

Igandean bertan Ordizian juntatu ziren mukizu borrokek, Mikel kriston gudaritzat izango dute gainera... noski baietz! Kriston zozoa esango genuke.

Zeuen gorrotoa zeuen ezina da.

Goierriko EGI



Tfona: 885500 ORDIZIA

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Intereseko Telefonoak

ZALDIBIA

Udaletxea880358-
887450. Faxe: 885043
Kultur Etxea:888090
Kontsultorioa:880027
Eskolak:884251
Taxista:889157

ITSASONDO

Udaletxea:881170
Medikua:881359
Farmazia:887589
Eskolak:887704
Altzagako tfno. publikoa: ...880740
Urkiako lokutorioa: .806045
Erretore Etxea:881161

Errezeta



**Iñaki Ibañezek
emana
Julki Gozotegia
Beasain**

GIRLATXEA

Osagaiak: kilo 1 almendra,
kilo 1 azukre, 50 gramo gu-
rin.

Xigortu almendrak zar-
tagian edo labean. Azukrea
ontzi batean jarri eta urtu
arte berotu. Juxtu erre baino
lehen, gurina gehitu eta
sutatik kendu.

Almendra epelak eta

zurituta gehitu, eta olio-
z igurtzitako espatula bate-
kin nahastu ontzian bero-
tasuna galdu arte.

Olio-
z igurtzi lan egin
behar dugun tokia (bandeja
edo mahaia) eta bota nahas-
keta. Lan egiten jarraitu
gogortu arte. Moldetan jarri
edo moztu.

Bota bertsoa



**Joxe Munduate
Gaia: Agur 95.ari
Doinua: Zer da gaur
Donostian**

Urte zaharra hago
bukatuta kasi
haseran ilusioz
hintuguna hasi
geroztik ekarri duk
nahikoa desgrazi
amets goxoak gaizto
bihurtu arazi
gogoraterik ere
ez huke merezi.

Igandean behar duk
arnasaz ordaindu
guk berriz berriari
ateak zabaldu
guregan esperantza
behar da ugaltu
duda izpirik ez dut
hobea behar du
itxaropenik behintzat
ez dezagun galdu.



S. A.
liburudenda

⇒ Liburuak
⇒ Jostailu didaktikoak
⇒ Eskola materiala
⇒ Bulego materiala

Elosegi, 16
Tfnoa.: 88 65 00
LAZKAO

MUNDUATE

Erlojutegia

*100 urte baino gehiago
Goierritarren zerbitzura*

**Certina, Tissot, Seiko,
Orient, Citizen, Lotus,
Festina, MX Onda,
Casio...**

Kale Nagusia, 1 ☎ 88 12 72
ORDIZIA

MAHAINGURUA

Gaia: Gipuzkoako Bertsolari
Txapelketa

Hizlariak: Mikel Mendizabal,
Rufino Iraola, Nikolas Zeberio,
Joxe Munduate eta Joxepa
Madariaga

**Abenduak 22
Ordiziako Barrenan
Iluntzeko 7.30etan**

Antolatzaile: Goierritarrak K. E.
Gipuzkoako Bertsolari Elkarte
eta Bertso Eskola

Lana

□25 urteko neska euskalduna prest dago etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo antzeko lanetarako. Espe-rirentziaduna. 889521 - 886789 (Elena).

□Tabernari edo zerbitzari bezala lan egingo nuke. 18 03 78. Izaskun (gazez).

Salerosketak

□Kerosenozko berogailu bat erosiko nuke prezio onean. 88 14 06.

□286 ordenagailua salgai. Inprimagailua opari. 28.000 pezeta. Tfnoa: 43 00 87. Igor (gazez).

□36 zm.ko zabalera duten musika ekipoentzako altzaria salgai. Sony markakoa. 12.000 pezeta. Berria. Tfnoa: 43 00 87, Igor (gazez).

□Technics markako bi kaja akustiko (bafle) salgai. 100 W.-din bakoitzak. Salarako egokiak. Berriak bezala eta merke. Tfnoa: 43 00 87 (Igor, gauetan).



ANTZERKIA

✓ Beasain:

Abenduak 29, 'Bederen 1' taldeak 'Errenta' antzezlana eskeiniko du Usurbe Antzokian, 19:30ean (erdaraz) eta 22:30ean (euskaraz), Usurbe Antzokian. (ETBk grabatuko du). Sarrera: 300 pezeta.



✓ Zaldibia:

Abenduak 30, 'Umeke-riak' antzezlana taularatuko du Ttanttaka taldeak, Zinean, 23:00etan. 14 urtetik gorakoentzat da. Sarrera dohainik.

BERTSOAK

✓ Segura:

Abenduak 23, bertso saioa J.R. Elortza, A. Sa-

rriegi, U. Iturriaga, I. Elortza, M. Lujanbio eta J. Sorozabalen eskutik, Baratz Pilotalekuan, 22:30ean. Gai-jartzailea: Pello Urretabizkaia. Antolatzailea: Segurako Txirindulari Elkartea. Berogailua egongo da.

DANTZAK

✓ Ordizia:

Abenduak 30, Beasaingo Aurtzaka eta Ordiziako Jakintza dantza taldeek J.I. Iztueta 150. urteurrena ikuskizuna eskainiko dute Plaza Nagusian, 20:00etan.

✓ Zaldibia:

Abenduak 24, Iztueta Dantza Taldearen emanaldia kalean zehar, Olentzeroa ospatuz.

MUSIKA

✓ Beasain:

Abenduak 22, Beasaingo Bandaren kalejira, gabon-kantak interpretatuz, 19:30ean.

Abenduak 22, Loinatz

Abesbatzaren Gabonetako Kontzertua Andre Mari Zeruratuaren Parrokian, 22:00etan.

Abenduak 23, Musika Eskolako akordeoi taldea eta ume kantarien kalejira, gabon abestiak interpreta-tuz, eguerdiko 12:30ean.

✓ Lazkao:

Abenduak 22, Beasaingo Haizezko Quintetoaren kontzertua San Prudentzio ermittan, 20:00etan.


Abenduak 24, Easo Koruko Eskola Gregorianistak eta Lazkao Abesbatzak Gregoriano eta Eguberri kanten kontzertua eskainiko dute, Benediktarren Eli-zan, 12:00etan.

Abenduak 27, Ordiziako Musika Eskolako ikasleen emanaldia Zaharren Egoi-tzan, 18:00etan.

✓ Ordizia:

Abenduak 17, Oroith abesbatzaren kontzertua Elizan, 20:00etan.

Abenduak 25, Eguberri kontzertua, Beti Argi musi-ka bandaren eskutik, Plaza Nagusian, 13:00etan.



EDERGINTZA

Ana Kristina Olano
Senpere Zentru Komertziala
88 15 50 BEASAIN



JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA

- Perfumeak, kosmetika, estetika tratamenduak.
- Opariak.
- Makilari bereziak.

J M Barandiaran Pl., 3 ORDIZIA 88 28 88



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfnoa: 88 40 57
ZALDIBIA

Estebán Lasa, 7
Tfnoa: 88 80 29
BEASAIN

Abenduak 29, Nerea Erauskin sopranoaren kantu emanaldia, Marisa Olano pianojolearen laguntzarekin, Elizan, 20:00etan.

Urtarrilak 1, Drindots taldearekin dantzaldi herrikoia, Beti Alai pilotalekuan, 01:00ean.

ZINEA

✓ Beasain:

Goieniz Zine Kluba:

Abenduak 28, zine proiektzioen 100. urteurrena ospatzeko, Goierriin egindako laburmetraia eta beste bi luzemetrai klasiko, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BESTELAKOAK

✓ Lazkao:

Abenduak 19, literaturaletasuna pizteko ekimena: Goizean Patxi Zubizarreta 7. eta 8. mailako ikasleentzat arituko da eta arratsaldean Xabier Mendiguren 1.BBBkoentzat. 17:00etan, Pello Añorgarekin ipuin kontaldia Udaletxeko Areto Nagusian, 6 eta 11 urte bitarteko gaztetxoentzat.



✓ Ordizia:

Abenduak 30, 'Kili-Kili' ikuskizun berria eskainiko dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez Majori Kiroldegian, 17:30ean.

✓ Zaldibia:

Abenduak 19, Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa, Kultur Etxean, 15:00etan, 6-8 bitarteko haurrentzat.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Ordizia:

Abenduak 26, Mikel Saez de Urabain ordiziarak

'Torres del Payne (Chile)' ikusentzunezkoa eskainiko du Barrenan, 20:00etan.

Abenduak 28, Inurrategi anaiei 'Cho Oyu-Lothse' diaporama Herri Antzokian, 20:00etan.

HITZALDIAK

✓ Ordizia:

Abenduak 22, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari buruzko mahaingurua, Barrenan, 19:30ean. Hizlariak: Rufino Iraola, Mikel Mendizabal, Joxe Munduate eta Nikolas Zerberio. Moderatzaile, Joxepa Madariaga. (Berri gehiago Berriak labor atalean).

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Abenduaren 22tik 31ra, Coprodeli EEGri lagunduz, Usurbe Antzokiaren Erakusketa Aretoan, Peruko artisautza Erakusketa-Salmenta.

Urtarrilaren 8ra bitartean, IV. Aterpe Taberna Pinturako lehiaketan auke-

ratutako lanen erakusketa, Aterpe Tabernan.

IKASTAROAK

✓ Zaldibia:

Abenduaren 27 eta 28an, eskuzko pilotak egiten ikasteko ikastaldi laburra, arratsaldeko 4etatik 6etara, Kultur Etxean. Ikastaroan parte hartzeko izena abenduaren 22rako eman behar da Kultur Etxean.

MENDI IRTEERAK

Idiazabalgo mendizaleak:

Abenduak 31, Urdaibai.

GOARDIAKO BOTIKAK

Abenduak 18: Urbizu; **19**: Atorrasagasti; **20**: Azpilikueta; **21**: Jauregi; **22**: Laurnaga; **23-24-25**: Cuesta; **26**: Arriola; **27**: Urbizu; **28**: Atorrasagasti; **29**: Azpilikueta; **30-31-1**: Laurnaga.

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



GOIAGI
OKINDEGIA
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ♦ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

KITTO
taberna

Goizetan 8etatik aurrera zabalik
Joan Iturralde, 1 ☎ 16 19 39
BEASAIN



Xabier Gartzia
(Beasaindar irakasle
eta idazlea)

**“Zakur
arrazistek beren
txokoaren
(herriaren) hobe
beharrez eta
beren
txabolaren
(etxearen)
amodioarengatik
aritzen direla
esango dizute,
baina amodiorik
sutsuenak ere
arrazakeriarik
ankerrena ekar
dezake”**

Arrazakeriaz aritu nintzaizuen aldizkari honen aurreko aleetan, eta, gaurkoan, tolerantziaren gaineko zenbait hausnarketa ekarri nahi ditut paperera. Izan ere, tolerantziaz idatzi beharra baitago, arrazakeriaren mamuei izarak erantzi eta ezerezaturik utzi nahi badiugu behinik behin. Erantzi beharreko izara horietako bat endogamia da (aspaldian bertan behera uzten hasi ginena, zorionez) eta, tolerantziaren izenean, erabili behar dugun jantzirik dotoreena exogamia dugu. Endogamiak, hau da, talde bereko jendearen arteko ezkontzak egiteak, taldearen ezaugarri fisikoak indartu eta sendotzen ditu, baina besterik ez. Biologia modernoak dioenez, endogamiak taldearen ondare genetikoak pobretu egiten du, eta exogamiak, aldiz, hots, talde ezberdinetako jendearen arteko ezkontzak egiteak, ondare hori aberastu egiten du. Baina biologia modernoak horrelakorik esango ez balu ere, humanismoaren arrastorik ttikiena duen guztiak endogamia baztertu eta exogamia etxekotu beharko luke.

‘Pureza de sangre’ delakoaren mitoa ere bazterrean utzi beharrean gaude, zeren-eta odol garbikoa izatea inork atsegin izan baldin badu, arrazakeriaren mamuak atsegin izan baitu beti. Hitler, kasurako, guztiz sinetsirik zegoen odol garbikoa zela. Beren buruak odol urdinduntzat hartzen zituztenak ere odol garbikoak omen ziren. Baina aise argi daiteke pentsamendu horren faltsukeria: odol urdindun horietakoren bati tiro bat bota diotenetan (barka adibide makabroa!), mundu guztia bezala odolustutzen hasi dira eta, mundu guztiak bezala, odol gorria dutela ikusi dugu. Baina, argiago esanda, esan al dezake inork nola arraiotan garbitzen den odola? Esan al dezake nola arraiotan izan daitekeen pertsona baten odola beste batena baino garbiago edo puruago?

Pozarren irakurri dut Elhu-

Tolerantziari leiho bat (eta III)

yar-eko Hiztegi Entziklopedikoak arrazari buruz dakarren azalpen hau: “*egungo ikuspegi zientifikotik eta genetikaren aurrerapenen ondorioz, ez du zentzu handirik arraza-sailkapenik egiteak*”. Azalpen hori bat dator Mario Muchnik idazlearen ‘Mundo judio’ liburutik kopiatzen dudana esaldi honekin: “*araza-kontzeptua ez dago aplikatzerik giza espezieari*”. Esan dezadan, bidenabar, aipatu liburua, meritu eta balore ugari horniturik egoteaz gain, arrazakeriaren kontrako alegatu zorrotz, zuhur eta bipila dela. Liburu horrek irakatsi dit niri arrazako katuez edo arrazako zaldiez hitzegin daitekeela, baina gizaki hauek arraza honetakoak eta beste horiek beste arraza horietakoak direla esatea bidegabekeria handia dela. Nik, zer gerta ere, arrazako zakurrak eta zakur arrazistak ongi berezi behar direla pentsatzen dut, arrazako zakurrak txertaturik egoten baitira beti eta ez diegu zertan beldurrik eduki behar, eta zakur arrazistek, aldiz, txertatu gabeak izaki, amorrua zabaltzen baitute nonnahi, eta, beren hozkadak kutsaturik bukatuko ez badugu, aurpegi eman behar diegu beti hortz eta haginez. Ez dugu sekula ahaztu behar zakur arrazistek zertarako erabili duten arraza-kontzeptua historian zehar (joan den mendean bati-pat): beren arrazakoak ez omen zirenak zapaldu, azpiratu eta hankapean hartzeko. Zakur arrazistek beren txokoaren (herriaren) hobe beharrez eta beren txabolaren (etxearen) amodioarengatik aritzen direla esango dizute, baina amodiorik sutsuenak ere arrazakeriarik ankerrena ekar dezake. Horretaz ari naizela, Mario Muchnik-en hitzak datozkit berriro

burura: “*Jende multzo oso bat --adibidez, herrialde berean jaiotako guztiak, edo erlijio baten jarraitzaile guztiak, edo kolore bereko azala daukaten guztiak-- gorrotatzea (edo maitatzea, gauza bera baita), horixe duzue arrazakeria*”.

Honez gero, baten batek galdetu dio bere buruari: Sabino ere, gure herria biziki maitatuz, zakur arrazista ote zen? Nik ez nuke dudarik egingo aipatu ditudan Sabinoren esanak gaur egun erabiliko dituen hura zakur arrazistatzat jotzeko. Sabinoren arrazismo kutsuko hankasartzea, ordea, ez erabat baina nolabait barkagarria da. Hori argitzeko, hemen baino luzeago eta zabalago aztertu beharko lirarteke bere garaiko giro politiko, sozial zein ekonomikoari zegozkien ezaugarri guztiak. Begien bistakoa da Sabinoren esanetatik gaurko EAJko buruzagien esanetara dagoen aldea. Sabinok ‘Pedantesca y tenebrosa Maketania’z hitzeginen zuen, eta, egun, Arzallusek tolerantziaren ikurrina goratu nahi duela ikusi uste izan dut nik. Euskal nazionalismoan oinarritutako mezu tolerantzia iruditu zitzaidan Arzallusek, 1995eko uztailaren 31n, Sabin-Etxean botatakoa. Honatz jaulki zituen bederatzi aleetako batzuk: “(5) *Inor ez da inor baino gehiago eta begirunea zor diogu elkarri bakoitzaren ideia, erabaki eta ekintzetan. Onartzen dugun diskriminazio bakarra, jaiotzaz edo eratorriz balio gutxituen aldekoa da. Gure gizartearen giza-neurria gure arteko ahulenek edo gaitasun gutxien dutenek jasotzen duten begiruneak erakusten du.* (6) *Herri bat ez da beste bat baino gehiago. Arrazakeriaren aurka gaude.* (9) *Anai bezala hartuko dugu gure herriaren etorkizuna gurekin batera egin eta bizi nahi duen guztia nonahitik etorria delarik ere*”.

Ederrak hitzak, tolerantziari leiho bat zabaltzen dizkietenak. Hitzak behin-betiko betetzea besterik ez da falta orain.

Txanpinoiak bezala

Bolada batean ez da taberna berririk ireki Beasainen. Udalak debekatu-ta-edo izango zuen, zeren orain, ehizako debekualdia kentzen dutenean bezala, zer izango eta doze-nerditik gora zabaldu behar omen dituzte, laster batean. Ez ordea, gutxi samar dauden auzoetan: gaur bertan taberna gehienak pilatzen diren kale horietan jarriko omen dituzte berri horiek ere. Perretxi-koak bezala esan behar nuen baina nahiko bakan dira horiek gaur egun; hobe txanpinoiak bezala esanda.

Ez dakit zer esan. Ezin ukatuko dut nork bere negozioa zabaltzeko eskubidea; eta tabernetan sartzea libre da, hor ez dut nik zer esanik. Nahiago nuke, noski, horrenbeste tabernaren ordeztu beste era bateko dendak ireki eta, batez ere, lanpostu produktiboak sortuko balira; baina nor ausartu gaur horretan?

Zorte ona opa diet tabernari berriei, ni bezero kaxkarra izango naizen arren. Hala ere, ezin kendu dut burutik etorkizunari buruzko kezka: industriak gainbehera segitzen badu, erretiro, langabeziako diru eta bestelako laguntza sozialak xoxak tabernetan gastatu ahal izango ditugu bolada batean, bai, baina nondik jango dugu bihar?

Xabier Mendiguren Elizegi

Nola hasiko duzu urte berria?



Maixa Nazabal
38 urte, zaldibitarra
antzerki begiralea

Zaldibiko Gazte Asanbladak antolatzen duen jaira joango naiz. Ordu batean hasten da eta denetarik izaten da, jendeak asko parte hartzen du.



Andoni Mujika
22 urte, ikaslea
beasaindarra

Parranda txiki bat eginda, Gabonak etxean pasatu beharko ditugu eta. Beasainen hasi eta ez dakit non bukatuko dugun.



Joxe Telleria
58 urte, erretiratu
beasaindarra

Alde dugun ondoena. Afaltzeko denok juntatzen gara etxean eta gero gazteak atera egiten dira. Karta jokuan aspertzen garenean, ohera.

A ze flaxa!



GOIERRITARRA dohainik banatzen da. Harpidetza txartela kartazalean sartu, zigilua jarri eta bidali besterik ez dago GOIERRITARRA dohainik eskuratzeko. Harpide berri honek zigilua ere dohainik zela pentsatuko zuen eta hona hemen zer bidali digun: (noski, bere zigilua GOIERRITARRAK ordaindu behar izan du).

MIRENTXU

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!
Jaiotzak eta gabonetako apaingarriak
Opariak, Liburuak...

Kale Nagusia, 1
☎ 88 14 57

Nafarroa Etorbidea, 7
BEASAIN ☎ 88 04 55


LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN




Urtesabel Auzoa
Tel. 884798 161359

20247 Zaldibia
(Gipuzkoa)

**Bazkari eta afariak txotxeko
sagardoarekin egunero**

**Edozein egunetan, edozein janari
prestatzen da enkargatuz gero:
bataio, bazkari...**



Ba al dakizu?



ERTZAINZA EZ DA HERRIARENA' Ordiziako plataforma aurkeztu zen hilaren 13an. Ordiziako zenbait kolektibo eta partikular biltzen ditu plataforma honek eta "azken egunotan Eusko Jaularitzatik eta Goierriko zenbait udaletatik Ertzaintzari ematen ari zaion legitimazioa salatu nahi dugu. Herriarena dela eta herriaren alde ari dela esaten dute. Baina guk uste dugu Ertzaintza hau ez dela herriarena", esan zuen Bittor Merino plataformako bozeramaleak. Hau horrela dela esateko arrazoiak badituztela esan zuten: besteak beste, "Ertzaintza etorri berria zenean, Amnistiaren Aldeko Batzordetako jendea jipoitu zuten muralak jartzeagatik; Or-

diziako jaietan txoznak zirela eta Ertzaintza sartu zen; intsumisoak Ertzaintzak detenitzen ditu; zenbait gauetan Ordiziako tabernetan modu txarrez sartu izan dira; Txupi zinegotziaren ongi-etorrian kargatu egin zuten eta zauritu bat izan zen. Hauei gaineratu behar zaie zenbait gazteri egiten dien segmentu

eta kontrola. Zuek atera kontuak Ertzaintza herriarena ote den. Ertzaintza Jaurlaritzaren eta EAJren errepresso-rea da", gaineratu zuen Merinok.

PRESOEN SENIDEEK mozioa aurkeztu zuten presoak dituzten zenbait herrietako azken plenoetan. Mozioak, presoan eta senditarkeoen giza eskubideak onartzea, presoak Euskal Herrira ekartzea eta legeak markaturiko baldintzak betetzen dituzten preso guztien baldintzapeko askatasuna aplikatzeko eskatzen zuen. Herri batzuetan iskanbila handiegirik gabe onartu zen mozioa, eta bestetan, eztabaida eta tentsio handiko momentuen ondoren, atzera bota zuten.

ORMAIZTEGIKO

BARIANTE edo sahiesbidearen lanak egiteko obrak, Altuna eta Uriak eta Galdiano Eraikuntzak egingo dute. 4.200 milioi pezetako aurrekontua zuen 5,4 kilometroko zatiak, enpresa hauek berriz, 2.700 milioitan egitea hitz eman dute. Beasain-Durango autobia zatiaren bigarren fasea da honakoa eta 16 hilabeteko epea dute lanak amaitzeko.

ORDIZIAKO

HILERRIAN 11 hilobi eta panteoi bat profanatu zituzten abenduaren 9an. Familiartekoek gertakarien salaketa aurkezteko asmoa azaldu zuten.

GOIERRIKO JAIOTZA

TXAPELKETA antolatu du Zeraingo Kultur Etxeak eta Udalak. Egu-berrietako jaiotzagintza bultzatu nahi da, batik bat gazteen artean. Hiru mailatan banatu dute txapelketa: 6-10 urteko haurrak, 11-14 urteak eta 15-18 urtekoak. Edozein teknika erabili daiteke. Neurria gehienez, 0,7 m. x 1 m.-koa izango da. Jaiotzak Zeraingo Pilotalekura eraman beharko dira abenduaren 22edo 23an. Jaiotza bakoitzak aparteko kartazal batean egilearen datuak ekarri beharko ditu,

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.


☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai oihalak
Toailak - Gortinak eta Osagarriak

J. M. Borandiaran Plaza
(Gudarien Etorbidea)
tel. 88 00 84
20240 ORDIZIA



FERNANDO ARANA LEKUONA

Gabon zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 ☎ 88 89 80 ORDIZIA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



**GOKINDETA
GARBINA**

K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19

☎ 88 77 58

☎ 88 72 79

☎ 16 00 44

BEASAIN

LAZKAO

ORDIZIA

izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta ikastetxearen berri emanez. Maila bakoitzean hiruna sari banatuko dira: 25.000, 15.000 eta 10.000 pezetakoak. Sariak datorren urteko urtarilaren 7an banatuko dira eguerdiko ordu batean. Abenduaren 24tik urtarilaren 7ra bitartean, erakusgai izango dira jaiotza guztiak Zeraingo Pilotalekuan bertan.



EGIN MUS TXAPELKETA Asier Zabala eta Gorka Irizar ormaiztegiarrek irabazi dute. 6.000 parte hartzaileetan onenak, edo zortetik handiena izan dutenak izan dira ormaiztegiarrok. *"Herrian izan zen kanporaketara presentatzeagatik presentatu ginen. Ormaiztegitik Hernanira eta Hernanitik Hendaiara. Orduan esperantza sortzen da baina ez genuen inola ere espero txapeldun izaterik"*,

esan digu Gorkak. Duela pare bat urte aurkeztu zen Gorka Egin Mus txapelketara, baina herriko kanporaketa ere ez zuen pasatu. Giroa oso ona izan omen dute partehartzaileen artean eta saria ere bikaina: txapela eta kotxe baina. Asier Zabalak oraindik ez dauka gidatzeko baimenik. Hendaian jokatu zen finalean, Martin Mendizabal eta Jabier Eizagirre idiazabalдар bikotea ere izan zen.

AITOR

FURUNDARENA ordiziar akordeoijoleak 3. egin zuen abenduaren 8an, Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Txapelketan. Finlandiar batekin berdindu zuen hain zuzen ere. Goi mailako kalitatea nabarmendu zen Arrasaten eta ordiziarrek adierazi duenez, sekula baino lehia gogorragoa izan zen.

MHAINGURUA. Goierritarrak Kultur Elkartek, Gipuzkoako Bertsolari Elkartek eta Argi-Berri Elkartek elkarlanean, Gipuzkoako Bertsolari Txapleketari buruzko mahaingurua antolatu dute hilaren 22rako. Hizlariak Mikel Mendizabal, Joxe Munduate, Nikolas Zeberio eta Rufino Iraola izango dira. Moderatzaile lanean Joxepa Madariaga arituko da. Hau guztia, Ordiziako Barrera Kultur Etxean, abenduaren 22an, iluntzeko 7.30etan. Guztiok gonbidaturik zaudete.

DURANGOKO

AZOKARA begira argitalpen berri ugari kaleratu da. Goierritarrek ere lan franko egin dute eta hona hemen emaitzak: Xabier Mendiguren Elizegik 'Bekatuaren Itzala' eta 'Opor ezberdinak' ipuina kaleratu ditu; Patxi Zubizarretak 'Biolin bat Maribeltxarentzat' eta 'Bihotzerre'; Joxean Ormazabalek 'Lazkao Txiki'; eta Xabier Mendiguren Bereziartuk 'Euskal itzulpegin-tzaren historia laburra' liburua. Musikari dagokionean, Aitor Furundarena akordeoijoleak musika herrikoiaz osatutako bigarren diskoa kaleratu du. Haurrentzat, azkenik, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek 'Kili-kili' diskoa jarri du merkatuan salgai. Ordiziako Musika Eskolako haurrek hartu dute parte diskoan, euren koruak eginez.

SAN SILBESTRE lasterketak, abenduaren 31n, Beasain eta Ordizian izango dira urtero bezala. Beasainen, eguerdiko 12etan abiatuko da. Ordizian arratsalde partean izango da lasterketa herrikoi hau. 18:30ean hasiko dira probak.

IKER SUKIAK Euskadiko marka hautsi du berriro ere pisu jaurtiketan. 15,96 metrotan zuen Ikerrek berak marka. Azken saioan, 16,46 metroraino bota zuen bola ataundarrak.

KUKO
Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Mariartz, 4
Tfnoa: 88 86 84

Alpe

BEASAIN

Xerlo

**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Zorionak eta urte berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05

BEASAIN

ARANTXA taberna

Zorionak eta urte berri on!

*Pintxo eta
ogitarteko
bereziak*

☎ 88 72 46

Ordizia kalea z/g ORDIZIA

OIANGU

TABERNA

Euskalerria z/g
Tfona: 88 30 03

Ordizia

AMONANE

Zorionak eta urte berri on!

Nagusia 30

ORDIZIA

MIAMI kafetegia

Ogitarteko eta pintxoetan aukera zabala

Etxezarreta kalea ORDIZIA




ORDIZIA

Ñañarri taberna

Zorionak eta urte berri on!

Kale Nagusia 15 BEASAIN

☎ 88 06 59



Zorionak eta urte berri on!

ITZALA Taberna


Zaldizurreta 3 BEASAIN

Tfona: 88 30 24



PUB XUBER

Urte zaharra giro edarra
Urte berri gurekin etorri
Zaldizurreta, z/g BEASAIN



Zorionak eta urte berri on!

Zaldizurreta kalea ☎ 88 45 06
BEASAIN




Bai Bai
Pub

Zorionak eta urte berri on!

Zaldizurreta, 3
BEASAIN

ETXEBE

Giro jatorreko taberna berria



Zaldizurreta Kalea

*Zatoz Gabonak
eta urte berria gu-
rekin ospatzera*

BEASAIN

Itasondoko gertaera ahoz-aho

Abenduaren 10ean ustez Mikel Otegi gazteak eskupeta tiroz bi ertzain hil zituenetik hona, mugimendu eta zeresan ugari izan da Euskal Herri osoan. Itsasondotar gaztea bere etxean bertan atxilotu zuen Ertzaintzak. Beasaingo Ertzaintzaren komisaldegian gaua pasatu ondoren, astelehenean bertan pasatu zen Tolosako Goardiako epai-learen aurrean. Honek, gaztearen kartzeleratzea agindu zuen eta Martuteneko kartzelan dago harrez geroztik.

Hildako bi ertzainak Iñaki Mendi-luze eta Jose Luis Gonzalez ziren. Batzuen eta besteen erreakzioak berehala etorri ziren. Igande arratsaldean bertan, Ordizian 500 lagun bildu ziren 'Ertzaintza ez da herriarena' lemapean, Mikelen aldeko oihuak botaz eta jasan duen presioa salatuz. Astelehenean,



berriz, bi hildakoei eta Ertzaintzari oro har, babesa emateko, Beasain, Ordizia eta Lazkaoko alkateak Ertzaintzaren komisaldegian bildu eta komunikatua irakurri zuten. Komunikatu horretan, "azken aldian jasaten ari garen en-frentamendu giro eta indar demokrati-koengana zuzentzen den eraso" sa-latu eta gertatutakoaren errua ezker abertzaleari bota zieten. Astelehen

arratsaldean bertan, Goie-rriko zenbait alkate bildu ziren Ordiziako Udale-txean, eta besteak beste, abenduaren 14an Ordiziatik Beasaingo Ertzaintzaren komisaldegiraino manifes-tazio isila egitea onartu zu-ten.

Bestalde, Itsasondoko Udalak aho batez onartu zuen komunikatuak dionez, Ertzaintzarengandik "ne-kez jasan daitekeen presio-giroa bizi du gazte asko-txok, Mikel Otegi bestek

beste: azken hilabete hauetan zehar bere burua ikusi du polizi kontrol, jar-raipen eta probokazioen biktima". Barne Kontseilaritzako arduradunei Polizia Autonomoaren jarrera alda-tzeko eskatuz, eta zenbait komunika-bideen jokabidea, eta sendi eta lagunak jasaten ari diren pertsekuzio polizial bortitza salatuz bukatzen da komuni-katua. Itsasondoko Gazte Asanbladak berak ere, Mikel Otegiren aldeko alda-rrikapena egin zuen, gertatutakoaren errua, jasaten ari zen presioari botaz.

Zenbait bertsio

Mikel Otegi itsasondotarrak egindako deklarazioa oraindik sumario sekre-tupean egonik, hilaren 10ean Itsa-sondon gertatutakoari buruzko bertsio ezberdinak zabaldu ziren. Barne Sai-lak igandean bertan zabalduetako ber-tsioaren arabera, Otegi lagun batzue-kin Itsasondoko tabernan gosaltzen ari zela zerbitzuz kanpo zegoen ertzain bat ezagutu, eta hari irainka hasi eta eraso egin zion. Beste bertsio zenbait-en esanetan, Itsasondoko tabernan gertatutakoaren aurretik, bezperan herriko Gazte Asanbladak antolatu-tako kontzertuan ere zenbait istilu izan ziren Otegiren eta ertzainen artean, haiek bolumena jaisteko eskatuz ber-taratu zirenean.

Barne Sailaren arabera, akusatuak, etxean zela, Oteizabal baserrira auto bat gerturatzen ikusi zuen. Goizean goiz kalean izandako gertakariengatik atxilotzera zihoazela pentsatuta, es-

kopeta atera eta tiro egin zien bi agen-teei bizkarrean. Beste kontakizun ba-ten arabera, ertzain bati egin zion tiro lehenik Otegi, eta bigarrena bizka-rrean jo zuen hark ihesean joateko buelta eman zuenean.

Beste zenbait bertsioak dionez, itsa-sondotar gaztea, gosaldutako ondoren Itsasondoko bere etxera joan zen. Etxera bidean gazteak Ertzaintzaren patruila batekin egin zuen topo. Poli-zia Autonomikoei jaramonik egin ga-be, "etxe inguruan beraien presentzia normala baitzen", diote iturri hauek, Mikel bere etxera sartu zen. Baserrian bertan ertzainen kotxearen motor ho-tsa entzunik, etxeko sarrerara urreratu zen. Beti ere bertsio honen arabera, Mikel Otegi atea ireki eta bi ertzai-nekin topo egin ondoren, handik alde egin eta pakean uzteko esan zien. Hitz hauen ondorioz, ertzainek itxura de-nez, beraien pistolak atera zituzten eta gazteak etxe barrura ihes egin zuen. Ondorenean gertatu zena gertatu zen.

Konzentrazio - manifestazioak

Gertakari honek eragin handia izan zuen Euskal Herri bizitza politikoan. Asteartean, Itsasondoko Udaletxe au-rrean, bi koncentrazio egin ziren: He-men Gaude plataformarena batetik, eta 'Ertzaintza ez da herriarena' lemapean bestetik. Tentsio handia bai baina hitzak aparteko istilurik ez zen izan.

Ostegunean, beste bi manifestazio konbokatu ziren Ordiziatik Beasaina. Herri Batasunak deiturikoa debekatu egin zuen Barne Sailak eta istilu gogo-rrak izan ziren lehenik Ordizian eta ge-ro Beasainen. Goierriko 14 udalek an-tolatuta, Ordiziako plazatik Beasaingo Ertzaintzaren komisaldegira egin zen manifestazioa. Pankarta 14 alkateek eraman zuten, Ardanza, Atutxa eta bes-te zenbait agintari ere bertan izan ziren.

 Ander Mujika

Eguberriak familia bildu, jan, abestu eta ospatzeko garaiak izaten dira. Goierriin badira hainbat eta hainbat atzeritar, egun berezi hauek etxetik urrun pasatuko dituztenak. Hauen berri jakin nahi izan dugu, beraien herrian Gabon gaua, Eguberri eguna, Urte Zaharra, Urte Berria eta abarrak nola ospatzen dituzten jakiteko. Gure Eguberriak nola ikusten dituzten eta beraienetatik zeren falta nabari duten ere galdetu diegu. Bide batez, Eguberri eta Urte Berri zorionsuak izan ditzazuela opa dizue

GOIERRITARRAK goierritar eta kanpotar guztioi.



Mor Ddiop senegaldarra

Mor Ddiop azokaz azoka ibiltzen da Afrika aldeko produktuak saltzen. Musulmanak dira eta ez dute Eguberririk ospatzen. Hori bai, "kristau lagunekin zerbait ospatzen dugu. Jan, edan eta dantza egiten dugu".

Guretzat Urte Berri eguna dena, ur-

tarrilaren 1a, beraientzat urteko beste egun bat gehiago besterik ez da. Ilargiaren arabera osatzen dituzte hilabeteak eta urteak. Beraien urteak gureak 10 egun gutxiago ditu. Hau dela eta, aurtengo Urte Berria abuztuan ospatu zuten. Elkartu eta jan berezia izaten dute. Honez gain, otoitzak egin, barkamena eskatu eta jendeari gauza onak opatzen dizkie. Dantzarik ere ez da falta izaten urte berriari ongi-etorria emateko.

Senegaldik urruti egon arren, inguruan dauden senegaldarrak elkartu eta saiatzen dira ahal duten ondoen ospatzen.

Gure Urte Zahar - Urte Berri gaua beraientzat berezia ez bada ere, zertxobait ospatzen dute. Baina "garaiz erretiratzeko gara. Musulmanok ezin dugu alkoholik edan, eta hemengo jen-



Stuart Kelling eskoziarra

"Fab" taldeko liderra eta ingeles irakaslea

Normala denez Eguberri eguneko lehen konparaketa egiterakoan janaria aipagarri: "britainiar irletan denek indioilarra jaten dute, patatekin, 4-5 berdurekin, saltsa ezberdinekin..." dio Stuartek. Gainontzean, egun handi hauek hemen bezela familiartean iga-

rotzeko ohitura dute. Zehazki, 24-25 egun hoietako egitaraua honako hau da: "afaldu ondoren pub batera joaten gara eta behingoz pubak gauerdiko 12rak arte zabalik egoten dira. Gero familia 7'30rak aldera jeikitzen da kafea hartzeko, mermeladaz beteriko hojaldrez lagunduta. Opariak irekitzen dira eta gero mezetara eta gero ha-maiketakoa. Gu baptistak gara eta oso erlijiosoak. Agian beste familia baten-gana joaten gara opariak elkarbanatzera. Ordubietan bazkaltzera eta tradizionalistenentzako garrantzitsua da Erreginak telebistaz luzatzen duen diskurtsoa ikus-entzutea. Gero arratsalde osoa etzanda", Stuartek umoretsu. Eskozian Aita Noel-engan sinesten dute, ez daukate erregerik.

Iaz Stuart hemen geratu zen eta bertako giroa ezagutzeko aukera izan zuen. "Angulak eta pastelak jan nituen. Oso ezberdina da baina oso ondo pasa nuen. Gabonak guretzako familiartean

egoteko egunik garrantzitsuenak dira eta faltan bota nuen iaz hori".

Urte Zahar eguna ere ezberdin ospatzen dute Eskozian. "Gaueko 9etatik aurrerako programa guztiak britainiar telebistetan eskoziarrak dira, tradizioa oso indartsua baita. Eta hori bai, whisky-a edan eta 'Dundee' izeneko pastel bereziak jan, gau honetan bakarrik jaten baitira". Kanpaiak entzuterako orduan mahatsa jan ordez whiskyari 2-3 zurrutada egiten dizkie. "First Footing deitzen dugun ohitura ere badago. Lagun baten etxera joan urtea hasi bezain pronto opari batekin, urtean zehar etxeari zorte ona opa asmoz. Ohiturak dioenez, opari eramalea lagunetan beltzaranena, gizonezkoa eta oparizat ikatza eramaten duena behar da (etxeari berotasuna eman asmoz edo). Gainera bertako dantza zaharrak dantzatzeko ditugu". Arraroa badirudi ere ez da derrigorrezkoa eskoziar gonak janzea, garestiegiak batira.

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

OTEÑE ERRETEGIA

Oporrengatik abenduaren 23tik urtarrilaren 9ra itxita.

Larraitz bidea



GAINTZA

☎ 88 98 48



Christopher Etter
Texas-koa (EEBB)
Lazkaoko Ikastolan irakasle

Bere 3. urtea da hemen. Aurretik 90ean etorri zen, Donostira gaztelera ikastera. Euskararekin topatu eta Maizpiden bukatu zuen euskara ikasten. 3 hilabete

egin zituen Ertziltxo baserrian biziz. Karrera (Linguistika) bukatu ondoren berriro itzuli eta Ikastolan ari da ingelesa irakasten.

Etter-tarrak, Texasen, familia biltzen dira, kanpoan bizi direnak joaten dira etxera eta 24an afari berezi bat egiten dute. Normalean nahiko arina izaten da eta gaueko 12etan mezataria joaten dira, protestante anglikanoak dira. Eguberri goizean Santa Claus-ek ekarritako opariak banatzen dituzte. Ondoren, bazkari handi bat egiten da familian. Normalean janari berezia jaten dute egun horretan eta "accion de gracias" egunean (azaroaren 3. osteguna), indioilarra eta beste janari berezi batzurekin batera.

Urte zaharra familian ospatzen da normalean, baina jende askok lagunekin jai bereziak ospatzen dituzte. Mu-

sika entzun, dantza egin, afaldu, 12ak jo eta festa egiten da, hemengo antzera. Urte berri egunean bazkaria egiten da familia bilduta, baina ez dago janari berezirik egun horretarako.

"Hemengoa zerbait ezagutzen dut eta oso antzekoa da, familia bildu, elkartasuna... oso polita da. Hemen haurrak eta kuadrilaka abesten ateratzen dira, han ni txikitan ateratzen nintzen baina orain ohitura galdu da", adierazi digu Christopher-ek.

Jaioterriko Eguberrietatik faltan gehien nabari duena familia da. Beti ere egun bereziak dira, familia elkartzeko. Ez da inoiz gabonetan itzuli, beti udan joaten da, baina gustatuko litzaioke urte batean joatea, hango giroaren falta nabaritzen du. Aurten bere aita etorriko da, ama amonarekin geratu behar da.

Olga Padró Leon
Mexico D. F. en jaioa
Seguran bizi da

Inoiz elurrik ikusi gabe, orain 3 urteko otsaileko elurtepean ezagutu zuen, gaur bere herria den Segura. Jesus R. Jauregi eskultore eta pintorearen emaztea, honen lan gorabeherengatik Euskalerriratu. 36 urte ditu, psikopedagoga da eta aurten euskara ikasten hasi da AEKn.

Mexicok tire berezia dio, eta gabon garaian beti ere gehiago. Han, hemen baino 7 egun lehenago hasten dira gabonak. Mexico D. F. ko auzo bakoitzean eta 7 egunetan zehar, Mariak, as-to gainean dela, eta Joxek, ostua eskatu zuteneko 7 aldiak antzeztzen dituzte, jendea kandlekin atzetik dutela.

Abenduaren 24an "Oilar meza" izaten dute 10etan. 11etan jaiotza ospa-



tzen dute. Etxe bakoitzeko umetxoek Jesus haurra zapi batean kulunkatu ondoren, ordurarte irudi hau gabe egon den jaiotzan jartzen da 1go aldiz. Honenkin bukatutakoan egiten dute afaria. Indioilarra, romeroak eta pontxea dira ohikoak.

Urte zahar eguna ez da horren berezia. 12etan mahatsak jandakoan hasten dute menu berezirik ez duen afaria.

Han, ez dago afalondoan kanpora ateratzeko ohiturarik.

Nahiz eta EEBBarrak Santa Clausen irudia bonbardatzen ari, erregeak dira betidanik opariak ekarri dituztenak. Txokolate egindakoarekin errege opila jatea da urtarilaren 6ko betiko ohitura. Opil barruko zapatatxo tokatzen zaionak, otsailaren 2an, kandelaria egunean, artazorro barruan artirinez eta haragiz egindako "Tamales" deituriko afaria prestatzeaz gain, bertara gonbidatu behar ditu gainerakoak.

Hau jende xeheari dagokionez. Aberatsek, EEBBen modura ospatu nahi izaten dituzte egun hauek. Olentzero-ren figurak, 24ko haur zein helduen kantu-eskeak, familian ospakizunak egin orduko kanpora ateratzeak, Jesus haurra jaio baino hilabete lehenagotik jaiotzatan ikusteak eta jendeak egiten dituen jan-edanak, dira Olga gehien harritu dutenak.

OIARBIDE OINETAKOAK

Laskurain, 12
☎ 65 37 86
TOLOSA

San Inazio, 14
☎ 16 04 34
BEASAIN



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin

GABIRIA

Eskola-mapa eta bere ondorioak

Azken urte hauetan ezartzen ari den erreformaren ondorioz, oinarrizko hezkuntza orokorra 16 urtera arte luzatuko da. Hori dela eta, 12 urtetik 16 arteko epe hori bilguneka edo eskualdeka antolatzeke asmoa dago, inguruko eskoletako haurrak eskola bakar batean bilduz.

Hezkuntza Saileko ardura-dunek proposatu duten egitasmoa aurrera ateratzen bada, Gabiriako haurrek 12 urte betetzear, hau da, seigarren ikasturtea amaitzean, Beasaingo Loinazpe ikastetxera joan beharko dute inguruko herrietakoekin batera. Horrela bada, orain arte Ormaiztegiara joaten baziren ere aurrerantzean zuzenean Beasaina joan beharko dute.

Dena dela, oraingoz proposamen bat besterik ez da eta gerta liteke, nahiko zaila bada ere, 12tik 14 urte arteko ikasturteak Ormaiztegin burutzea, hori da, behintzat, Gabiriako eskolako partaideek eskatu dutena.

Eskola-mapaz eta beste gai batzuez hitz egiteko datorren astelehenean bilera egingo da herriko eskolan.



5 herritar Arrasateko eskusoinu lehiaketan

Abenduaren 6an eta 7an Arrasateko Amaia Antzokian burutu den Gipuzkoako Eskusoinu Lehiaketan, 5 herritarrek esku hartu dute beste hainbat eta hainbat herritako eskusoinu-joleekin batera, maila edo kategoria desberdinetan.

Saio honetan derrigorrezko bi obren artean bat aukeratu behar zuten eta berori jo. Hainbeste jenderen artean aritzeak sortzen duen urduritasuna nabarmena izan arren, nahiko dotore aritu ziren eta horren lekuko lortu zituzten zilarrezko dominak eta diplomak.

Zorionak Jon, Aitor, Oihane, Oroitz eta Aimar eta aurrerantzean ere jarrai gogor.

Makilari aldizkaria laster

Egun dextente igaro dira "Makilari" aldizkariaren azken zenbakia argitaratu zenetik, baina azken hilabete hauetan aldizkari hori burutzeke lanean aritu den taldeak opari hau egin nahi dizue herritar guztioi, Gabonak hurbil ditugula eta, une atsegina

igaro dezazuen bertako orrialdeak begiztatuz eta irakurritz.

Gabonak gainean

Gabon eguna gainean dugu eta aurren ere urteroko ohiturari jarraituz hor ibiliko zaizkigu eskolako haurrak nahiz beste zenbait talde etxek etxe Gabonkantz abestuz eta egun zoriontsuak opatuz.

Nik ere Gabon zoriontsuak opa nahi nizkieke herritar guztiei eta urte berri zoriontsua eta osasuntsua izan dezatela.

 Gabino Murua



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00



LADA

N-1, z/g
Tfona: 88 09 47

ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

Iurre auzoa
OLABERRIA

URBITARTE
sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

Badatorrela Olentzero

Festa Batzordeak Hitzaro Euskara Elkartearen laguntzaz antolatuta, Gabon egun handia ospatzekotan da datorren igandean. Errege egunak gure herrian duen indarra ikusita, Hitzaro kultura taldekoek Olentzero bultzatu eta indartzeko beharra moa ikusi zuten. Hau dela eta, Festzordekoekin harremanetan egun berezi horretarako ahalik eta programa osotuena prestatzen aritu dira.

Egunotan jartzekotan dira Olentzeroa Barrena kanpokaldean, haurrek lehenbailehen beren eskutitzak bidaltzeko. Eguberri bezperan, berriz, arratsaldeko 6.30etan Garagartza Plazatik Olentzerok herrian zehar egingo duen itzuliari hasiera emango zaio. Ez dira faltako bere ondoan antortza eramaleak, trikitaliak, txistulak eta dantza taldeetako haurrak. Ondoren geldituz gero, Torresolen Udarneta dantza taldekoen eskaintza dastatzeko. Aurrera segi eta Aldasoro taberna inguruan Jakintza dantza taldekoek sorgin dantza eskainiko digute. Buelta eman eta berriro Torresolen sagar dantza Jakintzakoen eskutik. Olano Taberna ingurura iristean Urdanetakoen beste ekitaldi bat. Tartean, nola ez, Olentzero pipa hortzian duela eta eserita dagoela, umeak alaitu nahirik ibiliko da goxokiak boteaz.

Ekitaldiaren punturik gorenena Enparantza Nagusia izango da. Bertan Urdaneta dantza taldeko haur batek aureskua eskainiko dio Olentzerori. Dantza taldekoek erakustaldi bana egi-

ten duten bitartean Olentzerok haurren bisita jasoko du. Bertso bat ere eskaintzekotan omen da Olentzero.

Amaitzeko Oroith eta Santa Ana Txiki abesbatzek gabon-kanta bat abestuko dute. Ea eguraldiak laguntzen duen Olentzerori harrera ona egiteko aukerarik izaten dugun.

Azoka Berezia 27an

Tradizioarekin apurtuz eta iazko esperientzia positiboa kontutan hartuz, aurtenera Eguberriak igaro ondoren egingo da Gabonetako Azoka Berezia. 94erarteak Santo Tomas inguruan egiten ziren, baina orain egun horrek izan duen gorakada ikusita egokiagoa dirudi aste bete atzeratzea. Aurtengoa, beraz, 27an izango da eta bertan ez dira faltako indoiak, antzar eta kapoiak erakusketa, errege-sagarren lehiaketa, fruitu lehorrena, ahari eta ardi latzen erakusketa eta ezta euskal artzaien txakurren erakusketa ere. Jakin dugunez, Euskadiko Txapelketan irabazle izan ziren 14 txakurrak hemen izango ditugu. Beraz, izango da zerikusia 27an Ordizian feri berezian.

Merkatal-gune berria

Abenduaren 19an elkartzekotan dira Barrenan Ordizian merkatarik elkartekoak IBK kontsultorakoekin, merkatal-gune berriaren gaia dela eta. IBK-ek prestatu duten proiektuaren berri

emango dute merkatarien zalantzazko aurpegiaren aurrean. Ondoren merkatariek parte hartuko duten ala ez erabakia hartu beharko dute.

Igeriketa sari nagusia

Ordiziako igerilekuan estatu mailako egutegiko probarik garrantzitsuenak jokatuko da aurtengoa ere abenduaren 27an. Ikusmin handia sortzen duen proba bilakatzen da berau, gainera, aurtenera ETBk zuzenean eskeinitu du.

Antolatzaileen nahia ahalik eta igerilari hoberenak bertaratzeko dela ez du inork ukatuko. Bestela beren presentzia baieztatu dutenen zerrenda ikusi besterik ez dago. EEBBtako Illinois Unibertsitateko igerilari onenak hemen izango dira, baita hungariar selekzioa ere Edith Klocker, iazko garailea, buru dutela, Bordeleko Girondinsekoak, Yoav Bruk israeldar olinpikoa (bular eran bigarren azken Europeoan), iazko gizonezkoen irabazlea Martin Lopez Zubero, Sergi Lopez eta estatuan barrena errendimendu altuko zentruetan dauden igerilariak.

Iazkoan posible izan ez bazen ere, ziurtzat jo digute antolatzaileek, inoiz egon den estilistak onena omenduko dutela. Tomas Darny hungariaraz ari gara, orain bi urte Majorin ikusteko aukera izan genuen igerilari bikaina.

 Aitor Calvillo



Umeen arropa denda

Udazken-negu denboraldiko merkealdiak

Santa Maria, 13

ORDIZIA

☎ 16 12 39



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Zure edertasuna zaintzen dugu!

Solariuma
Depilazioa
Garbiketak
Azkal postizoak
Makilaia
Manikurak

Aloska

EDERGINTZA eta USAINDEGIA

Domingo Unanue plaza, 2
Telefonoa: 88 24 10 ORDIZIA

Usurbe Antzokiak urtebete

Usurbe Antzokiak urtebete egingo du abenduaren 23an. Urte askoan egon zen Beasain Zinemarik gabe eta jendeak zinea ikustera joateko ohitura galdu egin zuela esaten zen iaz. Ohitura berreskuratzen ari da Kruz Mari Ansoalde Usurbe Antzokiko esplotatzailearen esanetan. *"Hasieran jendea oso irregular joaten zen zinea ikustera, ohitura galduta zeukan. Orain erregulartasunez joaten dira"*, dio Ansoaldek.

'Maité' filmeak izan du orain artean ikusle gehien. Jarraian, 'El Primer Caballero', 'Cadena perpetua', 'Leyendas de pasión' eta 'Acoso' daude. Beasainen bota beharreko pelikula Ansoaldek aukeratzen ditu. Ezagutzen omen ditu beasaindarren gustuak eta horren arabera aukeratzen ditu. Beste zenbait herritan ere, Ansoaldek badu zineen ardura, eta beste herrietako gus-tuekin alderatuz ez omen dago ezberdintasun handiegirik.

Usurbe Antzokiaren lehen urteurren-
an ospatzeko, Bederen 1 antzerki tal-

deak 'Errenta' lana aurkeztuko du abenduaren 29an, Antzokian bertan. 19:30ean gazteleraz eta 22:30ean euskaraz. Sarrerak 300 pezetaren truke eskura daitezke. ETBk zuzenean grabatuko du antzezlan. Zineari dagokionez, berriaz, Eguberri egunez, 'Don Juan de Marco' ikusteko aukera izango da.

Alkartasuna Lizeoa

Ikasturte berria hasi zenean, astelehenetan, Aldaiaren askatasunaren aldeko konzentrazioak egiteko ekimena sortu zen Alkartasuna Lizeoan. Zuzendariak ontzat eman zuen ekimena. Azaroaren 20an, Ikastolako beste ikasle talde batak, astelehenetan, 'Euskal Herria Askatu' lelopean konzentrazioak egiteko baimena eskatu zioten Joxean Sarriegi zuzendariari. Debekatu egin zuen azken hau, enfrentamenduak sortzeko arriskua zegoela eta. Ikasle hauek adierazi zuten, mehatxuak luzatu zizkien Sarriegi, espedienteak aipatuz.

Zuzendaritzak guraso eta ikasle talde batekin bilera izan zuten abenduaren 1ean. Bi konzentrazioak bertan behera uzteko proposatu zuen Sarriegik. Ikasleek, aldiz, biak mantentzeko eskubidea zutela esan zuten. Gauzak honela, Aldaiaren askatasuna eskatzeko konzentrazioak bertan behera utzi bazituzten ere, 'Euskal Herria askatu' lema-
pean egiten direnak mantendu egiten dituzte.

Peruko artisautza

Peruko artisau lanen erakusketa eta salmenta izango da, abenduaren 22tik 31ra, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Gobernuz Kanpoko Erakunde den Coprodelik antolatu du eta talde honi laguntzea da erakusketa honen helburua. Ordutegiak ohikoak izango dira: iluntzeko 7etatik 9etara eta larunbat eta igandetan baita eguerdiko 12etatik ordu bietara ere.

ZEGAMA



San Nikolas

Herri Eskolako 6., 7. eta 8. mailako ikasleak urtero bezala kantari atera ziren San Nikolas egunez. Obispo bana buru zutelarik, bi taldetan banatu ziren. Batzuk, Otzaurtetik abiatu eta bide ertzean kokatzen diren baserri eta etxe guztietan kantatuz plazaraino iritsi ziren. Besteak, Olatxon hasita plazaraino. Plazan bi taldeak elkartu eta herria zeharkatuz kanta eta kanta ibili ziren herriko gaztetxoak.



Eguberri jaialdia

Urtero ohi denez, urtarrilaren 6an, Eguberri jaialdia eskainiko dute Orkatx Txiki eta Orkatx abesbatzek. Aurten XI. a izango da. San Martin Elizan izango da ohiturari jarraituz, iluntzeko 7etan. Guztiok zaudete gonbidaturik.

 Edurne Albizu

“Jolas, plist-plast” tailerrak

Adinaren arabera 12 taldetan banatutako 135 haurrek, San Prudentzio Eskolakoek eta San Benito Ikastolakoek, sei larunbatetan zehar oso gustora hartu dute parte “Jolas, plist-plast” tailerretan.

40 bat begirale, BBB, UBI eta Unibertsitateko ikasle gazte lazkaotarrak arduratu dira haurrekin egoteaz. Ekintzak programatu eta koordinatzeaz, berriz, bost gazte, begirale titulu-dunak batzuk eta lan hauetan esperientzia dutenak bestek, eta Goiherriko Euskal Eskolako dinamizatzaileak osatutako taldea arduratu da.

Lan handia egin dute guztiek ere. Arazorik ez da izan eta oso gustora ibili dira haurrak. Gurasoek eta irakasleek ere, ekintzaren oso balorazio baikorra egin dute.

Eskolorduz kanpo euskararen erabilerari indartzea lortu da, auzo desberdinetan eta lagun berriekin umeak nahasiz. Jokuak, jolasak, eskulanak, abestiak, dantzak eta gaineratikoak bitarteko eta lanerako borondateari esker lortu da emaitza. “Zalantza izpirik ez daukagu ekintza honek jarraipena behar duela eta aurrera egiten saiatuko gara. Abendua hilabete txarra da, lehen ere nahikoa ekintza izaten baita, baina urtarrila, otsaila edo martxoan



berriz ere martxan jarri beharko lirake tailerrak” adierazi du Mari Joxe Madariaga tailerren koordinatzaileak.

“Eskolorduz kanpoko euskararen erabilera areagotzeko premia adin desberdinetako haurrek dutenez eta zenbat eta koskortuagoak izan, erdararako joera handiagoa dutela uste dugunez, helduxeagoekin sailtu beharko genuke aurrera. Dena dela, egoera eta aukerak aztertu ondoren erabakiko dugu.” gehitu du.

Abenduaren leian, ostiralean, lanean aritutako begirale, koordinatzaile eta laguntzaileek bildu eta afaria egin zuten Gerriko txokoan. Afaria aprobetxatuz, aurrera begira, plan berriak martxan jartzeko asmoak ikusi zituzten.

Gabon giroa

Gabonak direla eta, hainbat eta hainbat ekintza antolatu dira Lazkaon abenduaren 15an hasi eta Astotxo egunerarte. Hauek zenbaiten berri agendan badago ere hona hemen gai-nontzekoak:

Abenduak 25: 12:00etan Lazkaotar Akordeoi Taldea auzoz auzo, eguberri abestiak joz ibiliko da. 13:00etan jaiotza biziduna egingo du Zawopik Lazkao Txiki Zelaian.

Abenduak 26, 27, 28, 29 eta urtarrilak 2, 3, 4 eta 5: 11:00etatik 13:00etara haur jokoak plazan. 15:30tik 17:30era dibujo eta pintura tailerrak San Benito Ikastolako eskulan gelan.

Urtarrilak 5: 19:00etan, Errege kabalgata, Agerre baserritik abiatuta, Zawopiren eskutik.

Urtarrilak 7: 11:00etan, Zistentarren konbentuan, Meza Nagusia. 13:00etan, herrian zehar Egiptoko ihesaren antzezpena, hau ere Zawopik antolatuta. 17:00etan pelota partiduak kiroldegian. Gaun torneoaren azken aurreko partiduak Lizarra eta Gernika artean. 18:00etan, Sara, Goiatz, Ruth eta Amaia trikitilariak herrian zehar.

PEAGE

bakero denda

**Levi's
Bonaventure
Replay
Guess
Liberto**

Kale nagusia, 42 ☎ 16 20 56
BEASAIN



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



ETXE ZVRI
SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

Bi herritar Burgosko epaiketari

25 urte bete dira egun hauetan Burgosko epaiketari sonatua egin zela. 16 euskaldun epaitu zituzten eta tartean bi herritar, bi aietar zeuden: "Aigualde" baserriko Joxemari eta Jone Dorron-soro anai-arrebak.

Epaiketari garaian, Joxemari 29 eta Jonek 31 urte zituzten. Lehena 68ko abenduaren 7an atxilotu zuten eta bere arreba, berriz, 69ko apirilaren 1 In Santanderko Mogrovejo herrian. Joxemari, Pedro Ruiz Balerdi abokatuak defenditu zuen eta Jone, Gurutze Galparsorok.

Jakina denez, heriotz zigorrak ezarri ziren. Joxemari hiltzera zigortu zuten eta Joneri, 50 urteko gartzela ezarri zioten. Abenduaren 28an jakin ziren zigorrak. Indultoa, berriz, bi egun geroago, abenduaren 30ean eman zuten, Francoren aginduz.

Ataundik Legazpira joan ziren bizitzera bi anai-arrebak. Gaur egun Bilbon bizi dira. Joxemari edo Unai, "Zutik" alderdian dago eta Bilboko Lizardi euskaltegia irakasle da. Jone, berriz, Errekalde Auzoko Eskola Publikoan.



Jone eta Joxemari "Burgos: juicio a un pueblo" liburutik hartutako argazkietan.

14 urterarte herrian

Hori da Herriko Eskolak eskatu duena. Hori eta D ereduak, euskara hutsezkoa izan dadila. Kezka ez dira uxatu baina abenduaren 5ean Eskolan egin zen Guraso batzarrean bi asmo horiek agertu ziren. Hemendik aurrera Ataungoa bezala, Herri Eskola diren artean bilerak egin eta azken proposamena egingo da. Goierrin, guztira, 13 Herri Eskola daude eta Beasaingo Loinazpera joan beharko luketen 220 haur guztira. Ataunen 23 dira egoera horretan daudenak.

Badirudi ateak zirrikturen bat baiduela eta zorte pixka batekin, 14 urterarte herrian jarraituko dute eskolameek.

Organoaren lanak atzeratua

Usteak ustel. San Martingo Elizako organoa konpondu eta txukuntzeko lanak luze doaz. Eguberrietarako prest izango zela uste zen baina Pazko egunerako ere nahikoa lan izango da. Orain

20-GOIERRITARRA

berria apuntatzea. Animo eta eman izena!

Sendotza

Abenduaren 30ean, larunbatez eta arratsaldeko 6.30etako Mezan, Sendotzako Sakramentua hartuko dute 10 gaztek. 18 urtekoak dira eta pauso berria emango dute kristau-bidean.

Kontu zaharrak berri

Joxe Arratibel 'Saarte-gaako' (Sariarte garakoa) baserriko prailak, kalean jarri du berriro 'Kontu zaharrak' liburuak. Herrian txikitari jasotako kontuak datoz bertan, irakurterez eta kurioso jasota. Orain 15 urte ere kaleratu zituen eta orain berriro, aurpegi dotoretuta. Aparteko doaia dauka Joxek, kontu horiek aditzera emateko. Joxe Arratibel Zurutuzak 72 urte egin ditu abenduaren 8an, Estibaritzen dago fraile beneditar eta azken urteotan, orain gutxirarte, bertako oilategiaren arduradun izan da.

Ia erabat galduta dauzkagun kontuak jaso ditu Ergoneko "praila-txikiak". Horrela deitzen zioten Lazkaoko Konbentura lehenbiziko aldiz joan eta gero.

Eguberri giroan

Zai jarrita gaude. Urtero bezala, kantuz beteko dira herriko kaleak, Gabon eta Urte Zahar egunez batez ere. Usadio zaharrari jarraituz, etxez etxe izango ditugu kantuan bateko eta besteko taldeak. 'Deo gratias', 'Berri onakin gera' eta beste kantu seinalatu batzuk entzungo ditugu.

Santo Tomas egunez, berriz, lau urte beteko dira Joxemiel Barandiaranek utzi gintuela. Gozatu ederra hartzen zuen, Gabon-kantak Sara etxe aurrean entzuten zituenean.

Murkondo Kultur Elkarteak lore eskaintza egingo du, Urte-Zahar egunez, Joxemiel Barandiaranen hilobian. Eguerdiko 12etan Saratik abiatu eta hilobira joango dira.

Ondo amaitu zaharra eta zintzo hasi berria.

 Jon Aizpurua

hiru urte hasi zituen lanak Katalunyak 'Arrizabalaga' enpresak eta uste baino lan gehiago aurkitu du nonbait. Orain, Eguberri aurretik andamioak jarriko dituzte organoaren aurpegia garbitzeko. Gainerako tresneria guztia Katalunyan dago eta Aste Santu aurretik amaitu nahi dira lanak. Era honetako Gipuzkoako organorik zaharrena da. Oñatiko Lorenzo Arrazolak egin zuen 1761ean. Organoa konpontzeko kostua 22 milioi pasatxokoa da eta Gipuzkoako Diputazioaren kontura doa.

Izerditan blai

Gustora dabilta San Martinen eta San Gregorion, Pako Urrestarazuren gimnasia klaseetara joaten diren pertsona guztiak. Guztira 21 hasi ziren San Martinen eta 17 San Gregorion. Batzuk mantenimenduan eta beste batzuk Hirugarren Adinekoen ariketak egiten. Orain Eguberriak pasa ondoren, jende berriak hasia behar du San Gregorion eta San Martinen ere komeni da, jende

Aitzol Sukia, txapeldun!



Aitzol Sukiak pelotariak "Café Baqué" saria irabazi zuen joan den igandean, abenduaren 10ean, Tolosako Beotibar pilotalekuan, Junbenil kategorian, Zizurkilgo Ander Aranbururi 18 eta 6 irabazi ondoren. Batez ere atzeko koa-droetan nagusitu zen Aitzol, eta, zizurkildarra aidez eta abar ongi defendatu zen arren, markagailuan adinako aldea bazegoen jokoan ere. Erraz irabazi zuen eta oraindik hobeto ere joka deza-keela uste dugu. Beraz, ezeren okerrik ez duela, mutil honek oraindik gauza handiak egin litzake pilotan. Zaldibitarrez betea ikusi genuen frontoia eta animazio faltarik ez zen izan Beotibarrren. Zorionak, Aitzol!

Santa Barbara Eguna

Adierazia zegoen moduan, handikiro ospatu zen Santa Barbararen festa abenduaren 8an. Elizkizuna laburra egin lehenik eta lagunarteko bazkaria ondoren, trikiti, bertso eta txiste, Lazkaoetxan. Mus txapelketarekin eman zitzaion amaiera. Aierdiko Goena eta Auntsitako Lizaso atera ziren txapeldun. Gogora ditzagun Iraola eta Zeberriok Santa Barbarari kantaturiko bertso bana.

Iraolak:

Zaindu itzatzu trumoi-tximistak, ekaitzak eta euriak, izan daitezen grazi onean zeru-goitik eroriak. Gizartean'e hainbeste gerra, gose eta komeriak... Era berean bare itzatzu gure kaskailukeriak.

Zeberriok:

Santa Barbara, Aiestarango auzoaren zain hor zaude, ta auzoatarrak zure ondoan bildurikan hemen daude. Bakar-bakarrik izan nahi degu pake santuaren jabe, horixe lortzen lagun iguzu odolik isuri gabe.

Hitzaldiak

Herriko guraso talde bat bildu da erlijioaren inguruko zenbait gai jorratu eta fede-esperientzian aurrera egiteko asmoz. Bi bilera mota egingo dituzte: batetik, hamabostean behingo asteartetan bilduko dira, arrotsaldeko 15:15ean, eta iluntzeko 20:00etan; bestetik, hilaren lehenengo larunbatean kanpoko hizlaria, tratatzen ari diren gaian aditua dena, etorri da. Hasierako gaia 'familia' da eta hurrengo bileretan gai horren inguruko saihestadarrak ikutuko dituzte: "Falimia eta kultura aldaketa", "Familiari buruzko kristau ikuspegia", "Familiari nola indartu", etab.

Yoga ikastaroa

Yoga Klasikoaren Institutuak yoga-ikastaroa antolatu du Zaldibian. Klase teoriko-praktikoak izango dira eta Kultura Etxean emango, abenduaren 16tik aurrera, larunbatero, goizeko 11etatik 12:30etara. Informazio

gehiago nahi duenak jo beza Kultura Etxeko arduradunarengana edota dei dezala telefono honetara: 88 96 67.

Ur-erreziboen ordainketa

Udalak 1995aren azken hiru hilabeteotako uraren ordainketa egiteko deia zabaldu duelarik, abenduaren 23ra arte egin ahal izango da ordainketa hori. Plazo horren barruan ordaintzen ez duenari % 20ko errekariguarekin kobratuko zaio.

Erreziboak banketxetik zuzenean kobratzeko helbideraturik dauzkaten zerga-ordaintzaileei hasieran pasako zaie erreziboa. Gaineratikoei beraiek pasa beharko dute, erreziboarekin, ohiko banketxetik.

Aipatu ditugun hiru hilabeteotako ur-hornidura eta prezio publikoari buruzko errolda Diruzaintza Departamenduan dago ikusgai, nahi duenak, hilabeteo epearen barruan, egoki irizten dien erreklamazioak egin ditzan.

Larraitz Gain itxita

Oporrak direla eta, joan astelehenez geroztik Larraitz Gain ta-berna itxirik dago. Hamabots bat eguneko atsedenaldiaren ondotik berriro da zerbitzuan. Bestalde, Gabon aurre honetan, Juanito eta bere familiari bezero guztiak agurtu nahi lituzke.

Txertakadi sagardotegia

Hilaren 14an ireki zituen ateak Txertakadi sagardotegia nagusi berriekin: Martin Irazustabarrena eta Maribi Dorronsoro. Denboraldiko sagardoa prest dago eta urte osoan irekita egongo da.

 Rufino Iraola

INÁBE

ERAIKUNTZAK S. A.

Mota guztietako eraikuntzak

Sanperio, 2

☎ 883829 - 882875

ORDIZIA



KOLDO TRIKITIXA ESKOLA

Giro jator eta atseginean ikas dezazun zuk aukeraturikoa

☎ 88 50 85

LAZKAO

Merzero-Azkarate pala txapelketako irabazleak

Aurtengo III. San Andres pala txapelketan 14 bikotek hartu dute parte. Merzero eta Azkaratek eta Olan anaiak osaturiko bikoteak iritsi ziren finalera.

Bi bikote hauek final erabat interesgarria eskaini ziguten, partidu osoan zehar beraien indarrak erabat parekatu izan baitziren. Hasiera hasieratik Merzero eta Azkarate aurretik jarri baziren ere, lortutako alderik handiena 5 tantokoa izan zen (5-10). Hortik aurrera Olan anaiak tantuen berdinketa lortzen saiatu ziren, partidu guztian zehar urdinek eta gorriek sei aldiz lortu zuten berdinketa. Azken emaitza 35-33koa izan zen, Merzero eta Azkarateren alde.

Bigarren postua iazko garaileek lortu zuten, Olan anaiak alegia. Hirugarrena, berriz, Lasa eta Murua bikoteak.

Herri kirolak

Pala partiduaren ondoren herri kirolak ikusteko aukera izan zen. Bertan Goenatxo III harrijasotzailea, Arrospide-Elorriaga eta Olsagasti-Peña aizkolariak izan ziren ikuskizun bikaina eskainiz.

Goenatxok 6 aldiz 200 kiloko harri errektangularra jaso eman zion hasie-



Olan anaiak sariak jaso ondoren.

ra bere lanari. Minutu eta 2 segundutan egin zuen. Aizkolariak ondoren, 80 ontzako enborra zutika moztu zuten, Olsagasti eta Peña 5' 30" egin zuten eta Elorriaga eta Arrospide 6' 15" etan.

Jarraian, Goenatxok 125 kiloko harri kubikoari 59 segundutan 10 altxaldi ematea lortu zuen. Aizkolariak, berriz, bosna korte aizkora eman zizkieten 4 enbor txiki kanakoei eta bat handiari. Lan hau burutzen Olsagasti eta Peña izan ziren lehenengo.

Aizkorak utzi ondoren trontzari ekin

zioten bikote bakoitzak 8 korte burutuz. Hemen ere Olsagasti-Peña bikotea izan zen irabazle. 15 buelta korrika egin behar izan zituzten amaitzeko, eta azkenean Peña Elorriagari aurre hartu zion.

Herri kirolei amaiera emateko Goenatxok ikuskizun bitxia eskaini zuen 100 kiloko harri biribila-rekin. Lepoari 10 bira ematea lortu zuen.

Odolki txapelketa

8 harakinek hartu zuten parte aurtengo IX. San Andres odolki lehiaketan. Partaideak hauek izan ziren: J.A. Oiarbide, Julian Mujika, Intxausti, Jose Mujika, Pedro Urzelai eta herriko hiru harakinak Iñaki Kanpos, Pablo Murua eta Jesus M. Deba.

Sailkapenean Legazpiko Pedro Urzelai izan zen buru. Jarraian herriko bi harakin, Iñaki Kanpos eta Jesus Mari Deba.

Aurten Barduliarrak elkartean egin zen odolki lehiaketa eta elkarte honek herriko hiru harakinei oroigarri bana eman zien omenaldi gisa.

Aitziber Murua

LEGORRETA

Helduentzako zinea astelehenetan

Legorretan betidanik egon da igande arratsaldeetan zinemara joateko ohitura. Baina zine proiektorea hondatu zenez, zenbait urtetan zine emanaldirik gabe egon dira. Guraso talde baten ekimenarekin haurrentzako bideo emanaldiak izaten dira igande arratsaldeetan.

Orain, ordea, helduentzako txanda iritsi da. Herrian hain errotua zegoen ohitura berreskuratu nahian, zine proiektore zaharra alde batera utzi, eta bideo proiektore ona erosi zuen Udalak. Pulitzer eta zenbait gazte aritzen

dira antolaketan Udalarekin batera. Bideoak Udalak erosten ditu, eta behin bota eta gero, Kultur Etxeko bideotekara eramaten dira, nahi duenak etxera eraman dezan. Liburuekin egiten den bezalaxe.

Astelehenetan izaten da bideo emanaldia, iluntzeko 8etan. Abendurako bideo ospetsuak aukeratu dituzte. 'Philadelphia' eta 'El Futivo' bota dituzte jada, eta orain, abenduaren 18an 'La lista de Schlinder' eta abenduaren 26an, asteartez, 'En la línea de fuego' eskainiko dituzte.

Zinema Elizarena da baina Udalaren esku dago 1996 urte bitartean. Udalak ez daki kontraturik luzatuko ote dien. Eliza hondatuta dago erabat, eta Mezak Zineman bertan ematen dira. Gauzak honela, datorren urtetik aurrera Zinemaren ardura Udalak izango duenaren garantiarik ez dagoenez, zine proiektorea konpondu (dirulaguntzak egon bazeuden) beharrean, bideo proiektorea erosi da. Era honetan, Zinemarik eduki ez ezean, Kultur Etxean botako lirarteke bideoak. Kultur Etxean horretarako gela bat egokitu dute.

Elorri K. E.-ak antolatuta aste kulturala

Elorri K. E.-ak urtean zehar burutzen dituen aktibitate kultural ugariz gain, aste kulturala antolatu du gabon aurreko eguntarako. Besteak beste, herritarrek herriko gaietaz emango dituzten hitzaldiak dira nabarmentzekoak:

Astelehena 18: "Herriko gertakizun eta ateraldiak". Hitzlariak: Joxe Intxausti eta Laureano Telleria. Kultur Etxean, iluntzeko 7,30ean.

Asteartea 19: "Pelotaren lehena eta oraina gure herrian". Partehartzaileak: Joxe M Auzmendi, Sebastian Garaialde, Patxi Etxeberria, Martin Alustiza eta Xabier Imaz, pelotari ohi eta pelotariak. Laureano Telleriak bideratua. Kultur Etxean, iluntzeko 7,30ean.

Asteazkena 20: "Galbidean dauden izenak eta ohiturak". Hitzlariak: Joxe Intxausti eta Laureano Telleria. Kultur Etxean, iluntzeko 7,30ean.

III. Elorri idazlanak

Ostiralean, abenduaren 22an, III. Elorri idazlan sariketaren aurkezpena. Bertan, ipuin kontalari, Idiazabalgo Lierni Galarraga eta Irantzu Arrizabalaga izango dira. Kultur Etxean, iluntzeko 7etan.

Bertso jaialdia

Larunbatean, abenduaren 23an, Segurako Txirrindulari Elkar-teak antolatuta, Joxe Ramon Elorza, Aitor Sarriegi, Jokin Sorozabal, Maddalen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Igor Elorza arituko dira bertsoan Peio Urretabizkaia gai-jartzailere dutela. Baratze Pelotalekuan, gaueko 10,30ean. Sarrera 600 pezeta. Berogailua egongo da.

Beheko Soroko beheko iturrie

Azken 30 urte hauetan sasiz estalia egon den iturri kurioso askoa bistaratu eta txukuntzen ari dira Udaletxeko langileak Madalena auzoan. Guardiko gain



Goian, Segurako Txirrindulari Elkartekoekin parte hartuz motoetan, bide gurutzeak egiten... ibiltzen direnak, abenduaren 7an Zopajalen egin zuten afarian. Behean, elizako lora-jartzaile, garbitzaile eta katekistak, abenduaren 1ean Atsedenen egindako afarian.



Sarrera estua eta aldapatsua du iturriak eta egun-argiz joatea komenigarria da. Argazkian, iturri zulora sartzeko azken harmailak eta ladriluzko bobeda.

aldera, Madalena Jatetxea baino aurreaxeago dago kamiñoz azpitik, "Beheko Soroa" izeneko zelaian. Goiko kotxe errepidetik zuzen, iturri zuloraino zihozten eskailera mailak, bideari eusteko ormigoizko pareta egin zutenean izorratu zituzten. Gaur, dozenaren bat harmaila besterik etzaizkio geratzen. Hauetatik jaitsita, lur azpian, ladriluzko bobedapean, metro karratu inguruko gunean, parean harritzko eserleku luzea duela, hantxe dago iturria, gutxi baina,

ura dariola oraindik.

"Makiña bat ur karreo egindakoak gera. Nahiz eta deuspositoa eduki, beti eman du ur gutxi iturri honek. Auzokoak eta inguruko baserrietakoak, eguna argitzerako ere azaltzen ziren ur bila, gastatu ere agudo egiten zen eta", dio Madalena-ko M Jesus Oiarbidek. Madalena aldeko ur bideraketak, berandu baina behingoz hobetu zituztenean, orain 30-35 urte, etorri zitzaion auzo iturri honi bere lozorroa.

Iturriberriko kaltzada

Herriko ondareaz jarraituz, azken 25 urte hauetan sasi eta saskakapean egon den, Iturriberri-ritik gora Urtsuaran aldera doan kaltzada eta estradari ere ari zaie txukundua ematen. Epe konkreturik jarri gabe, baina aurki irekiko da.

Gabonak

Udalak antolatuta, abenduaren 17an, kantu eta anda txapelketa egingo da goiz partean, plaza inguruan. Atal bakoitzeko 3 sari egongo dira.

Abenduaren 22an izango da sospresarik Laiotz Herri Eskolan. Iaz bezala, arratsaldean, Olentzero ikazkinaren etorrera espero dute 7 urterarteok.

Abenduaren 24ko iluntzean, berriro, Olentzerok herriko korua lagun duela, urteroko ibilbidea egingo du kaleetan zehar.

Abenduaren 31n, Segurako Kirol Elkar-teak antolatuta, urteroko igoera egingo da Aizkorriara goizeko 8,30etan herriko plazatik irtenda. Arratsaldean, ibilaldi neurtua antolatzekotan dira. Hau bukatzean txokolate egindakoa banatuko da plazan. Iluntzean eta urteroko moduan, Elorrikoen iniziatibaz, Segurako talogileek plazan egingo dituzten talo pintxoak probatzeko aukera izango da.

 Joseba Telleria

Gailurrerantz Kirol Elkartea Zaldibian

Asteburuan kirol giroa nagusitu da Zaldibian. Herrian kirol inguruan lanean ari direnek eman zuten berria: Zaldibian Kirol Elkartea izango da aurrerantzean. Azkeneko urteetan kirol arloan jende asko ibili da lanean eta guztiei esker herriko haurrak, gazteak... egun politak igaro dituzte eta kirol ezberdinekin kontaktoa izan dute (atletismoa, pilota, txirrindularitza, futbola, mendia...).

1973. urtean eratu zen Gailur Haruntz mendi elkarte. 1995an kirol ezberdinetan lanean ari direnak elkartu egin dira. Sail bakoitzean lantalde bat baldin badago ere, elkarrekin arituko dira. Elkartzeko arrazoiak bi dira: batetik ekintzak antolatzeko garaian hobeto koordinatzeko, eta bestetik, indarrak bildu eta elkar laguntzeko.

Mendi saila

1973ko apirilan sortu zuten herriko 6 lagunek. Harrez gero, mendi irteera asko antolatu dira eta Euskal Herrian zehar eta Euskal Herritik kanpo. Irteera hauen bitartez, herriko haurrak, gazteak eta ez hain gazteak txoko ugari ezagutzeko eta esperientzi ezberdinak bizitzeko aukera izan dute.

Mendi irteerak antolatzeaz gain, beste iharduerak ere antolatu izan dira eta entidade ezberdinekin kolaboratu da. Aralarko txoko eder batean, Ouiduen alegia, aterpe baten funtzionamenduaren ardura du Zaldibiko Mendi Elkartek.



Txirrindularitza saila

Zaldibian txirrindularitzarekiko zaletasun handia izan da. Duela 50 urtetik hona antolatu diren frogetan parte hartu duten zaldibitarren kopurua ikusi besterik ez dago; 20en bat guztira.

Gaur egun, intersozial zikloturista frogetan gutxi gora-behera 10 lagun biltzen dira. Eta Federazioak antolatutako frogetan, 3 zaldibitar dabilta; afizionatu, kadete eta jubenil mailan hain zuzen ere. Guzti hauei, norbere kasa dabilzanak gehitu behar zaizkie.

Frogetan parte hartzen dutenei laguntzeaz gain, kirol honekiko zaleta-

sun bultzatu nahi da, federazio ezberdinek antolatzen dituzten ekintzetan partehartzea landuz, eskolako haurrekin saioak eginenez, e.a. Urtean txirrindu frogaren bat antolatzea ere gustatuko litzaieke, baina ekintza guzti hauek poliki-poliki garatuko dituzte.

Futbol saila

Azkeneko 10 urte hauetan areto futbolekin adin ezberdinetako hainbat talde aritu da. Kirol azpiegitura ezak, areto futbolera murriztu du futbola.

Gaur egun batez ere, eskolako haurrekin ari dira lanean, baina aurreko desafio berri bati ekin diote: jubeniletik gorako nesken talde bat federatu baitute eta Gipuzkoako txapelketan parte hartzen ari dira. Arrakasta handia izan dute eta partidua

herrian dituztenean, sekulako giroa sortzen da. Hau ikusita, ekintza hauekin jarraitu nahi da.

Pilota saila

Pilota Eskolak ibilbide luzea du. Zaletasun handia egoteaz gain, jende asko modalitate ezberdinetan aritu baita. Eskolako haurrekin aritzeaz gain, Pilota Eskolako saio bereziak daude eta bertan parte hartzen duten haur eta gazteak, Federazioaren txapelketetan parte hartzen dute beste hainbat torneotan bezalaxe.

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN

ARTANE

Liburuak, Aldizkariak...

- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1

☎ 16 16 72

BEASAIN




**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA

“Ostiela!” aldizkaria, Goierritik Euskal Herrira

Durangoko Euskal Azoka egune-tan “Ostiela!” izeneko euskaraz-ko aldizkariaren 1. alea aurkeztu du “Paperzaleak” K.E.-ak. Oso ondo saldu da eta laister izango da 2. edizioa liburudendetan. “Ostiela!”-k 1.000 aleko tirada izan du 1. edizioan. Hasera batean bihilabetekaria izango da. Nazionala-edo ere badela esan liteke, euskal herrietara zabalduko baita, alegia. Euskal gizarte eta kultur munduko firma ezagun ugari azalduko dira bertan: Koldo Izagirre, Patziku Perurena, Mikel Aramendi, Pako Aristi, Iñaki Segurola, Tere Irastortza, Jon Arano, Iñaki Murua, Txema Larrea, “Ataño”, Mattin komikilaria eta Pello Sarriegi (5 goierritar), besteak beste, 1. zenbakia estreinatuz. Idazlan asko geratu da kanpoan aurrenekoan eta beste askoren kolaborazioak ere espero dituzte gerorako.

“Paperzaleak” Kultur Elkartek sortu berria da “Ostiela!”-ren argitaratzailea eta Jon Arano idazle eta kazetaria (GOIERRITARRAren sortzaile eta zuzendari-ohia) du koordinatzaile, Iñaki Segurola (filologoa) eta Balendin Tramon eta Ramon Ugalde irakasleen laguntzarekin. Aldizkari hau abentura berri bat da (ondo eztabaidatua, hori bai, urtebetearen buruan), bere arrisku ekonomikoa ere badakarkiona egileei. Euskal munduan izan duen sarrera ez ezik, “Ostiela!”-ren bideragarritasun ekono-



Logotipoa “Palli” Aseginolaza besaindarrak egin du.

mikoa da egileen kezka nagusia. Publizitatea lortu eta dirulaguntzez baliatu beharko da finkatzeko, saltzeaz (400 pzta.) eta harpidetzak lortzeaz gain.

Abentura berri honek “haize fresko” edo “aide berri” bat ere ekarri nahi luke euskal aldizkarigintzara, kultur-literatur eta kazetaritza alorretara. Aldizkari “heterodoxo” edo alternatibo-samarra izango da beharbada. Halere, ez da korrosibo edo “ganberroegia” ere aterako. Hainbeste literatur eta bestelako aldizkari desagertu ondoren, gaur egun sentitzen den hutsune bat betetzera dator “Ostiela!”, aspaldian betiere erein den euskal prentsa-literaturaren esparrua jorratzera. Literatura hutsetik aldentzeko bokazioarekin ere jaio da “Ostiela!”:

“erreportaiak, elkarriketak, iritzi artikulak, eskutitzak, komikiak, flaxak, e.a. bilduko genituzke, gizartea eta sorkuntza ahaztu gabe. Aktualitatezko gaiak nahiz atemporalak, hori bai, interesa pizteko modukoak, kaleko hizkeran. Ez kultuegiak, prexixoki; halakoak ere bai”, dio Jon Mikelek.

“Paperzaleok” indarrarekin sentitzen dira euskaltzalea eta euskal irakurlea zerbitzatzeko eta laster ikusiko da zein ahalmen duten elkar-lanean eta ze aukerak dauden dirulaguntzen, publizitateen eta harpidedun-erosleen aldetik. “Krisi-garaiotan jaio da gurea. Irakurlego eta tradizio txiki bat egon arren, zerotik hasten gara, baina ideia piloa dugu eta aurrerapausuak eman eta (egon, bada-goen) merkatua bilatuko dugulakoan gaude. Saiatuko gara Durangon bezala, euskaldunon jaietan, liburudendetan eta beste zenbait lekuetan aldizkaria saltzen”. Baina irakurri nahi eta aurkituko ez bazenu ere, seguruena harpidetza bete eta beraiei bidaltzea izango zenuke, itsasondoarrak dioenez. Orain goierritarren eskuetan ere badago berritzailea izan nahi duen “Ostiela!”-k aurrera egitea...

Edozein harremanetarako 161835 telefonora dei dezakezue. Harpidetzak eta kartak “Ostiela! 131. p.k. Ordizia, 20240”-ra zuzendu, mesedez.

Koldo Zubeldia



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 16 02 48
ORDIZIA



Legazpi kalea, 4
Tfona: 880406
ORDIZIA

UNTXUNDEI
Garajea



OSINALDE
Karrozategia


☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Ruanda: oporrak eta laguntza

Oporrak eta laguntza elkartuz joan ziren Jokin Izagirre segurarra eta Txomin Barandiaran lazkaotarra Ruandara. Hilabete pasatu dute bertan. *"Laguntzaren izenean norberak ondo pasatzen du eta norbera ondo sentitzen da"*, azpimarratu digute. Leonardo Esnaola eta Rosa Mari Zubiarrain lazkaotarrekin eta Manolo Aizpurua urrestildar misiolariekin izan dira bertan.

Kayenziko maternitatean egin zuten lanik handiena bi goierritarrek. Argi indarra, eguzki indarra berreskuratu dute. *"Gerra aurretik bazegoen, baina gerran puskatu edo lapurtu egin zuten. Instalazio hori egiteko materiala erosten eta lortzen eman genituen 10 bat egun. Material gehiena merkatu beltzean lortu genuen, saltzen dutena aurretik lapurtutakoa izaten da. Dendetan ez zegoena 'rastrot' horretan lor zitekeen"*, argitu digute.

Gainontzean, bi errekatxoan ur-etorria neurtu, entxuferen bat jarri, irati antenak ondo jarri... 'txapuzak' egiten pasatu zuten hilabetea. *"Lanean izerdi gehiago botatzen genuen han, baina nahi genuelako egiten genuen, ez behartuta. Azken batean hemen baino*



ordu gehiago lan egin genuen".

Dena den, guztia ez da lana izan. *"Ruandan ezin da turimorik egin. Zaireko errefuxiatu zelaian izan ginen Zaireko gobernua presioa egiten ari da errefuxiatuak Ruandara itzul daitezen. Itzultzean, batzuk hil egingo dituzte, besteak kartzelan sartu... beldurra dago"*. Ugandako Queen Elizabeth parke nazionalera joateko aukera ere izan zuten, bertako animaliak ikustera.

Tentsioa hor

Goierritarrek ez dute tentsio handiegi-

rik nabaritu gizartean, *"azken batean ezin izan garelako bertako jendearekin komunikatu. Baina misiolariak kontatzen dutenarekin ikusten da tentsioa badagoela. Preso asko dago, ez dago justiziarik, edozeinek hartzen du mende-kua behatzarekin seinalatuz. Militarren kontrolak bide guztietan daude eta Zairera gerturatu ahala, askozaz ere gehiago"*, azpimarratu dute.

Hemendik joan aurretik irati eta egunkarietan izan zuten tramentua ikusita, beldur piska bat bazuten, Ruanda zer izango ote zen. Baina *"han bizimodua normal desarroilatzen da, jendea hantxe bizi da, gauzak saldu, lurra landu... egiten dute"*, esan digu Jokinek. *"Hasieran pentsatzen genuen leku oso arriskutsura joan behar ginela eta piska bat mentalizatu egin ginen. Baina hara iritsi eta zuriotzat ez zela hain egoera txarra ikusi genuen, ez jan aldetik, ez sozialki, argia eta ura bagenituen... Bertakoek ez daukate baina Leonardoren etxean bizi ginen eta guzti hori bageneukan"*, gaineratu du Txominek.

Besoko ileak

Ondo hartu dituzte ruandarrek bi goierritarrak. *"Jendea alaia eta atsegina da. Zuriak geraldako-edo, pertsona inportanteak izango bagina bezala etortzen ziren agurtzera. Haurrak ere berehala inguratzen dira. Besoko ileekin harritzen ziren, bertakoek ez baitaukate ilerik. Bakarren batzuk negar ere egiten zuten, desberdinak garelako"*.

Bitxikeria ugari izan dituzte Afrika beltzean. Jokin globo-banaltzaile lanean ibili da. *"Globo mordoxka bat eramanez bertako umeei emateko. Batzutan batzuei eman eta bestetan besteei, izugarrizko poza hartzen zuten. Mutikoak atzetik etortzen zitzaizkigun ikusi orduko globo eske"*.

Goierriko bi misiolari

Leonardo Esnaolak 30 bat urte darmaizki Ruandan eta haren bitartez joan ziren Jokin Izagirre eta Txomin Barandiaran azken aldian hain famatu egin zaigun lurralde hartara. *"Leonardo han bizi da, han integratuta dago eta han geratuko da"*, esan digute. Rosa Mari Zubiarrain emagin lanetan aritzen da, Gabonetarako etxera itzultzeko asmo du. *"Laguntza asko banatzen dute"*. Hori bai, lan sozialarekin batera Pastolara ere lantzen dute.

Diru dexente iristen omen zaie. Baina egitekoa ere asko dute. Orain batez ere etxebizitzak, siloak eta kooperatibak berrosatzen ari dira. Lazkaoko Udalak milioia eman zioten eta

Kayenzirako argi indarra eraikitzeko materiala erosi eta etxebizitzak egiteko banatu dute. Segura eta Lazkaoko herriarrek ere bidali zuten zertxobait. Solidarioak garen edo ez galdetzean zera erantzun digu Txominek: *"uste baino laguntza gehiago iristen da Ruandara. Zenbat iritsi behar litzatekeen ez dakit, baina norbaitek ematen du"*. Jokinek, berriz, garbi dauka, *"ez gara solidarioak"*.

Ruandako misiolariak dituzten proiektuak aurkeztu behar dituzte orain Donostiako Prokuratuan. Urtero hara itzultzea gustatuko litzaieke, *"baina egunero egin daiteke zerbait hemendik. Hango jendea oso ondo portatu da gurekin eta zorra hor daukagu ahal dugun neurrian itzultzeko"*.

 Loinaz Agirre - Mikel Albisu



1938ko aramarrak

Jesus Mari Etxeberriak ekarri digu 1938. urteko argazki zahar hau. Igande eguerdian, meza entzun ondoren, txintxo-
txintxo kokatu, kamari begira jarri eta klik! Emaizta hauze duzue. Gabino Urretabizkaia lagundu dio Jesus Mariri bakoitzaren
izen-abizenak jakiten.

Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Eulogio Urreta, Jose Arruabarrena, Pedro M. Usabiaga eta Migel Oiarbide.

Erdiko lerroan: Jose Angel Galarraga, Antonio Urretabizkaia, Antonio Aiestaran (morroia), Patxi Agirre eta Ramon Jauregi.

Beheko lerroan: Martin Urretabizkaia, Jose Insausti, Gabino Urretabizkaia, Isidro Urreta eta Pedro Jauregi (idazkaria).



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



Nagusia, 11

☎ 88 82 37

BEASAIN

GABON HAUETAN
MULTIOPTICAS-
era ETORRI ETA
ERREGE BAT
BEZALA GELDITU.

1.ak
ZERBITZU
OPTIKOETAN



PREZIOA :
13.950



GABONETAKO PREZIO BEREZIA
9.500



PREZIOA :
11.000



GABONETAKO PREZIO BEREZIA
8.500



PREZIOA :
12.500



GABONETAKO PREZIO BEREZIA
8.900

Ray-Ban



PREZIOA : 15.500
GABONETAKO
PREZIO BEREZIA
7.500



PREZIOA : 16.900
GABONETAKO
PREZIO BEREZIA
8.800



PREZIOA : 29.670
GABONETAKO
PREZIO BEREZIA
15.000

Eta gainera...

6 HILABETETARAKO UKIPEN
LENTEAK EROSTEAGATIK
TXAMARRA OLINPIKO HAU
OPARITZEN DIZUGU.



MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

BERGARA

ARRASATE

ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522

ESISTENTZIAK
BUKATU ARTEKO
PROMOZIOA

PLUS

KIROL TXARTELA

BIZIA-OSASUNA
Bizkarrarentzako programa terapeutikoa

**KIROL ZERBITZU
BERRIAK**



**ORDUTEGI
BERRIA**

**LAGUN
BERRIAK**

**LURRIN
bainua**



**I.M.D.
K.U.E.**

BEASAIN

**ANTZIZAR KIROLDEGLA
BEASAIN**



Zatoz!!

ATZEGI
Kirol Egokitua



BEASAINGO UDALA
Gazteria eta Kirolak